


20
05



0%



EUSKADIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKADIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK 2005

Genero-azterketarako taldea
Politika Zientzia eta Administrazio Saila
2005eko ekaina

Ainhoa Novo Arbona
Eva Martínez Hernández
Arantxa Elizondo Lopetegui

Hitzaurrea	3
1. Biztanleria	4
1.1. Datu orokorrak	4
1.2. Ezkontzak.....	6
1.3. Jaiotzak.....	7
1.4. Heriotzak	8
2. Lana	22
2.1. Ugalketa-lana	22
2.2. Enplegua	25
2.2.1. Oinarrizko enplegu-tasak	25
2.2.2. Biztanleria aktiboa	27
2.2.3. Biztanleria okupatua.....	29
2.2.4. Biztanleria langabea, enplegu-eskaria eta kontratazioak	31
2.3. Atzeritarren lan-egoera	33
2.4. Lan-osasuna	35
3. Hezkuntza	65
3.1. Bigarren Hezkuntzako tasak eta ikasketak	65
3.2. Unibertsitate-ikasketak	69
3.3. Helduen hezkuntza eta araubide bereziko hezkuntza.....	70
3.4. Irakasleria	71
4. Osasuna eta sexualitatea.....	85
4.1. Datu orokorrak	86
4.2. Osasun-baliabideen erabilera	87
4.3. Osasunaren prebentzioa eta sendagaien kontsumoa.....	89
4.4. Osasuneko arriskuak	91
4.5. Sexualitatea	92
5. Gizarte-bazterkeria eta errenta	111
5.1. Pobrezia.....	111
5.2. Errenta pertsonala	115
5.3. Gizarte-zerbitzuak eta egoitzak.....	117
6. Emakumeen aurkako indarkeria	131
7. Erakunde publikoak eta herritarren partaidetza.....	141
7.1. Ordezkatze-erakundeetako emakumeak eta gizonak	141
7.2. Gobernu-erakundeak eta administrazio publikoa	143
7.3. Partaidetza soziala eta ekonomikoa	145
7.4. Berdintasunerako esku-hartze publikoa	147

SARRERA

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 2005eko txostenak gizarte-errealitateko esparru askori buruzko adierazle asko jasotzen ditu. Urtero egiten diren azterketa horiek euskal administrazio publikoak gure gizartearen ezagutza garbia izateko duen interesa islatzen dute. Ikuspegi zehatzago batetik, txosten horiek bi helburu dituzte. Alde batetik, sexuen arteko desberdintasunak hautemateko erabilgarria izan daitekeen informazioa ematea instituzioei, eta bestetik, horiek ezabatzeko politika publiko egokiak eta eraginkorrak erraztea.

Aurtengo txostenaren edukia gaikako zenbait bloketan egituratuta dago. Bloke bakoitzean dagokien gaiei buruzko oinarrizko adierazle kuantitatibo batzuk jasotzen dira. Epigrafe bakoitzean, lehendabizi, datuen analisi orokorra ageri da, eta ondoren, adierazleen taulak. Erabilitako metodologia aurreko urteetako txostenetan bildutako datu batzuen eguneratzean oinarritzen da. Dena den, adierazle berriak ere sartu dira, arlo bakoitzari buruz duela gutxi egindako azterketak eskuragarri izatearen arabera. Informazio gehiena autonomia-erkidegoko, estatuko eta, zenbaitetan, —ikuspegi erkatu orokorra izateko— Europako bigarren mailako erakunde-iturrietatik dator.

1. BIZTANLERIA

1.1. Datu orokorrak

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) emandako Udal Erroldaren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak 2.120.384 biztanle zituen 2005ean. Biztanle horietatik erdia baino gehiago (% 51,1) emakumeak ziren. Sexuaren araberako biztanleriaren banaketan aldea txikia bada ere, azken urteotan beti egon dira emakume gehiago. Dena dela, sexuen arteko aldeak garrantzi handiagoa hartzen dute adin-taldeka aztertzean. Aurreko urteetan bezala, 2005ean ere gizonak emakumeak baino gehiago dira 40 urtetik beherako adin-talde guztietan, eta hortik aurrera jarrera alderantzizkoa da. Hala ere, aldea nabarmena da 70 urtetik aurrera, adinekoen biztanlerian emakumeen gehiengoa nabarmena baita. Aldeak nabarmenagoak dira adina handitzen den heinean: 80 urtetik gorako 55.578 pertsonatik 35.599 emakumeak dira, hau da, % 64.

EAEko biztanleriaren bilakaerak mantentzeko joera du azken urteetan; 1975etik gaur egun arte 50.000 pertsonako gorakada moderatua izan da. Hazkunde begetatiboak (hau da, jaiotzeen eta heriotzen arteko diferentziak) adierazitako aldakuntza oso txikia da, 2005ean 763 pertsonako diferentzia positiboa adierazten du. 1.000 biztanleko saldo begetatiboaren bilakaera aintzat hartuta, 1975ean 12,5koa zela eta 2005ean, berriz, 0,4koa izan zela ikusten da.

Mugimendu demografiko naturalak islatzen dituen beste adierazle bat jaiotzako bizi-itxaropena da, eta biztanleria zahartzen laguntzen du. Azken hamarkadetan, igoera nabarmena izan da, ia zazpi urtekoa biztanleria osoarentzat: 1975ean emakumeen bizi-esperantza 76,6koa zen, eta 2001ean, 83,7koa. Adierazle hori 2004an Europar Batasuneko herrialdeetako batez bestekoa —81,2 urte emakumeentzat eta 75,1

gizonentzat— baino handiagoa da.¹ EAEko gizonen bizi-itxaropena 76,4 urtekoa da; hau da, oraindik ez da iritsi emakumeen 1975eko bizi-itxaropenaren mailara. Gainera, epe horretan, sexuen arteko diferentzia 7 urtetik 8,4ra igo da.

Biztanleriaren hazkunde-maila zehazten duten hiru aldagai nagusiak ugalkortasuna, heriotza-tasa eta migrazioa dira. Mugimendu demografiko naturalek adierazten dute herrialde garatuetako biztanleriaren pixkanakako zahartzea immigrazioak neutralizatzen duela. EAEko immigrazioen eta migrazioen arteko diferentzia, hau da, migrazio-saldoa 6.251koa izan da 2005ean. Atzerritarren biztanleria 72.894 pertsonakoa izan da, hau da, biztanleria osoaren % 3,4. Emakumeen eta gizonen arteko banaketa nahikoa orekatua den arren, emakumeen proportzioa pixka bat txikiagoa da. Dena den, adinak eta jatorriak desberdintasun nabarmenak adierazten dituzte atzerritarren biztanlerian. Immigrante gehienak 25 eta 34 urte artekoak dira. Are gehiago, 50 urte bitartean, gizonen proportzioa emakumeena baino handiagoa da, eta hortik aurrera, joera alderantzizkoa da. Hala eta guztiz ere, desberdintasunik handienak etorkinen jatorriari buruzkoak dira. Atzerritar gehienak amerikar kontinentekoak dira: 33.013 pertsona. Amerikako etorkinen % 59,1 emakumeak dira. Aldiz, afrikar jatorrikoen % 70,8 gizonak dira.

Azkenik, oinarrizko beste ezaugarri demografiko bat familien batez besteko tamaina da; Euskadin 2,94 pertsonakoa da. Tamainarik handiena 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udaletakoa da (3,14), eta txikiena, hiriburuetakoa (2,81).

¹ Eurostat News Release, marzo 2006.

1.2. Ezkontzak

Ezkontza erakunde sozial garrantzitsua da. 2005ean 9.479 ezkontza izan ziren EAEn. Azken 30 urteetako ezkontzen kopuru absolutuaren bilakaera negatiboa da. Ezkontza-tasa, 1975. urtekoarekin alderatuta txikia den arren, laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera leheneratzen hasi zen. Ezkontzari dagokionez, esan beharra dago ezkontzen direnen batez besteko adina pixkanaka handitzen joan dela azken hiru hamarkadetan, baina, hala ere, gizonen batez bestekoa emakumeena baino bi urte eta erdi handiagoa da, gutxi gorabehera. Gaur egun, lehen aldiz ezkontzen diren emakumeen batez bestekoa 31,3 urtekoa da, eta gizonena, 33,7koa. Ezkontzen direnen egoera zibila aintzat hartuta, gehienak ezkongabeak zirela adierazi behar da. Hala ere, azken 15 urteetan, berriro ezkondu diren dibortziatuen kopurua bikoitza baino pixka bat handiagoa da.

Azken urteetan, baliogabetasun-, banantze- eta dibortzio-epaien kopuruak gora egin du. 2003an 4.066 ezkontza-haustura legeztatu ziren, banantze-epaiak gehienak. Banandutako pertsonen adina eta sexua aintzat hartuta, gehienak 40 eta 49 urte bitarteko taldekoak direla ikusten da, eta gainera, hori pixka bat nabarmenagoa da gizonen kasuan. Dibortziatutako pertsonen artean ere joera antzekoa da. Demanda nork jartzen duen aintzat hartuta, kasu gehienetan bi ezkontideek jartzen dute (kasuen % 54,9an), ondoren emazteak (kasuen % 26,2an), eta azkenik, senarrak (kasuen % 15,4an). Banantzeen motiboei dagokienez, gehienak adostasunez egiten dira, eta % 16,5 auziak dira. Dibortzioetan, aldiz, tasa hori % 27,4koa da.

Banantzeen eta dibortzioen eraginik handiena hogeitietatik gorako iraupeneko ezkontzetan hautematen da: hausturen ia hirutik bat ezkontza-profil horri dagokio. Horri buruzko erabakia hartzen denean, ia beti aita izaten da pentsioa ordaintzearen arduraduna.

1.3. Jaiotzak

2004an 19.594 haur jaio ziren, erdia baino pixka bat gutxiago neskek. EAeko jaiotza-tasa azken urteetan apur bat handitu eta 9,3ra iritsi da. Hau da, 1995eko datuekin alderatuta bi puntu igo da, baina 1975eko tasa altuetatik (19,1) oso urrun dago oraindik. Tasarik txikiena Bizkaikoa da (8,8), eta handiena, Gipuzkoakoa (10,0). Pixkanaka gorantz joan arren, EAeko jaiotze-tasa erkatuak Letonia, Eslovenia, Txekiar Errepublika, Lituania eta Italiakoak atzean utzi arren, Austriakoaren eta Estoniakoaren parekoak dira. EAeko ugalkortasun-tasa orokorrak ere kopuruak pixka bat gora egin duela adierazten du, laurogeiko hamarkadan beherakada nabaria izan ondoren. Izan ere, ugalkortasun-tasa sintetikoak (ugaltzeko adina duen emakumeke seme-alaba kopurua) argi erakusten du bilakaera: 1975ean 2,8koa zen, eta 2004an, 1,2koa. Joera hori aztertzeko egindako aurreikuspen demografikoen arabera, ugalkortasun-tasa sintetikoa 1,2tik 1,5era pasatuko da 2010ean; hala ere, ez da nahikoa belaunaldi arteko ordezkapenerako.

Jaiotzei buruzko datuen bilakaerari erreparatzen badiogu, eta zehazki jaiotzen ordenari, bigarren seme-alaben kopuruak bereari eusten diola ikusiko dugu, baina hirugarrenena txikitu egiten dela. Esate baterako, 1986an bi anai-arreba zituzten 2.614 haur jaio ziren, eta 2005ean, berriz, 1.222 baino ez.

Beste ezaugarri azpimarragarri bat haurra jaiotzean amak duen adina da. Amatasunaren batez besteko adinak hiru urteko gorakada izan du azken urteetan: 1975ean 28,8koa zen, eta 2004an, 32,4koa. 2005ean, haurren bat izan zuten emakumeen % 70k baino gehiagok 30 eta 39 urte arteko adina zuen.

Bestalde, ezkontza jaiotza-tasarekin oso estu lotuta dago, oraindik ere. Izan ere, jaiotzen ia % 80an ama ezkontuta zegoen. Jaiotza-tasari eragiten dion beste faktore garrantzitsu bat emakumeak lan-esparruan sartu izana da. Amak aktibo eta ez-aktibotan sailkatu eta adina aintzat hartuz gero, 2004an ama izan zirenen erdia baino apur bat gehiago — hain zuzen ere, % 56,5— aktiboen kategorian daudela hautematen da. Adina kontuan hartuta, 29 urte arte ez-aktiboen ehunekoa handiagoa da eta hortik aurrera joera alderantzizkoa da: 30 eta 39 urte arteko amen taldean, % 64,4 aktiboak dira.

1.4. Heriotzak

2005ean 18.821 heriotza zenbatu ziren EAEn, eta haien erdia baino pixka bat gutxiago emakumeak ziren (% 47,1). Ikuspegi erkatu batetik, Euskadiko heriotza-tasak Europar Batasuneko tasen tarteko posizioetan daude, eta Espainiakoak gainditu egiten dituzte (8,9koa izan zen 2001ean). Bizi-itxaropenari buruzko datuekin bat etorritz, adin-taldekako heriotza-tasei buruzko adierazleek 80 urte arteko adin-tarteetan gizonen heriotzak ugariagoak direla diote.

Amaitzeko, 2004an 106 suizidio izan ziren EAEn. Horietako 86 gizonak ziren, suiziden profilari buruzko joerei jarraituz. Seme-alabak izateak ala ez izateak ez ditu desberdintasun handiak sortzen suizidatzen direnen artean. Dena den, kasuen kopurua nahiko txikia da horri buruzko joera garbiak adierazteko.

1. BIZTANLERIA

1.1. Datu orokorrak

1.1. taula. EAEko biztanleak lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2005. urtea.

	Guztira	Emakumeak	%	Gizonak	%
EAE	2.120.384	1.083.669	51,1	1.036.715	48,9
Araba	295.786	148.470	50,2	147.316	49,8
Bizkaia	1.139.002	586.023	51,5	552.979	48,5
Gipuzkoa	685.596	349.176	50,9	336.420	49,1

Iturria: EUSTAT.

1.2. taula. Biztanleak adin-taldeen, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2005.

	EAE			Araba			Gipuzkoa			Bizkaia		
	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G
Guztira	2124846	1084321	1040525	299957	150334	149623	688708	350103	338605	1136181	583884	552297
0-4	93065	45204	47861	13271	6480	6791	32632	15915	16717	47162	22809	24353
05-09	83023	40272	42751	11759	5799	5960	29120	14078	15042	42144	20395	21749
10-14	81339	39597	41742	11699	5688	6011	27228	13235	13993	42412	20674	21738
15-19	94326	45963	48363	13975	6815	7160	29925	14556	15369	50426	24592	25834
20-24	127753	62284	65469	19258	9322	9936	39862	19331	20531	68633	33631	35002
25-29	174056	84366	89690	25949	12454	13495	55503	26719	28784	92604	45193	47411
30-34	178937	86356	92581	26501	12680	13821	58070	27724	30346	94366	45952	48414
35-39	174254	85244	89010	25589	12394	13195	55905	27130	28775	92760	45720	47040
40-44	172239	86255	85984	24569	12309	12260	54700	27230	27470	92970	46716	46254
45-49	161110	81009	80101	22568	11332	11236	51227	25477	25750	87315	44200	43115
50-54	142273	71696	70577	20239	10051	10188	46400	23256	23144	75634	38389	37245
55-59	140014	70803	69211	19808	9781	10027	46707	23430	23277	73499	37592	35907
60-64	115148	58982	56166	15999	7817	8182	37472	19194	18278	61677	31971	29706
65-69	99165	52711	46454	13063	6582	6481	31890	16832	15058	54212	29297	24915
70-74	107125	58578	48547	13259	6942	6317	33697	18490	15207	60169	33146	27023
75-79	84169	49037	35132	10022	5656	4366	26561	15670	10891	47586	27711	19875
80-84	55578	35599	19979	6908	4324	2584	18146	11645	6501	30524	19630	10894
+ 85	41272	30365	10907	5521	3908	1613	13663	10191	3472	22088	16266	5822

Iturria: 2005eko Udal-eroldaren berrikustea, EIN

1.3. taula. EAEko biztanleriaren bilakaera sexuaren arabera. 1975-2005.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
2005	2.120.384	1.083.669	1.036.715
2002	2.116.240	1.081.537	1.034.703
2000	2.079.210	1.063.240	1.015.970
1998	2.083.255	1.064.809	1.018.446
1996	2.092.949	1.069.120	1.023.829
1994	2.101.472	1.072.058	1.029.414
1992	2.104.027	1.071.561	1.032.466
1990	2.104.805	1.070.354	1.034.451
1988	2.123.964	1.078.259	1.045.705
1986	2.137.547	1.083.374	1.054.173
1984	2.146.502	1.086.186	1.060.316
1982	2.148.245	1.084.918	1.063.327
1980	2.141.353	1.079.755	1.061.598
1978	2.123.602	1.070.613	1.052.989
1976	2.092.050	1.055.065	1.036.985
1975	2.071.778	1.045.105	1.026.673

Iturria: EUSTAT.

1.4. taula. EAEko biztanleria aldakuntza-tasaren arabera. 2005.

	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde begetatiboa
EAE	19.584	18.821	763
Araba	2.752	2.382	370
Bizkaia	10.072	10.465	-393
Gipuzkoa	6.760	5.974	786

Iturria: EUSTAT

**1.5. taula. EAEko saldo begetatiboaren bilakaera 1000 biztanleko
1975-2005.**

	Saldoa
1975	12,5
1980	6,8
1985	2,6
1990	0,0
1995	-1,0
2000	-0,5
2004	0,4
2005	0,4

Iturria: EIN. Oinarritzko adierazle demografikoak.

1.6. taula. Sexuaren araberako bizi-itxaropenaren bilakaera jaiotzean. 1975-1998.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Diferentzia
1975	73,1	76,6	69,6	7,0
1980	74,9	78,9	71,0	7,9
1985	76,2	80,1	72,4	7,7
1990	77,1	81,3	72,9	8,4
1995	78,1	82,1	74,0	8,1
1998	79,0	82,7	75,3	7,4
2001	80,0	83,7	75,3	8,4

Iturria: EIN. Oinarritzko adierazle demografikoak.

1.7. taula. Migrazio-mugimenduak EAEn. 2005.

	Immigrazioak	Emigrazioak	Migrazio-saldoa
EAE	67.401	61.150	6.251
Araba	9.260	7.019	2.241
Bizkaia	40.205	36.185	4.020
Gipuzkoa	17.936	17.945	-9

Iturria: EUSTAT.

1.8. taula. Atzerritar biztanleria adin-taldean eta sexuaren arabera. 2005.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Guztira	72894	35511	37383
0-4	2796	1388	1408
05-09	3363	1653	1710
10-14	3407	1643	1764
15-19	4104	1970	2134
20-24	7860	4026	3834
25-29	12310	6001	6309
30-34	11841	5503	6338
35-39	9111	4152	4959
40-44	6572	3150	3422
45-49	4376	2137	2239
50-54	2834	1454	1380
55-59	1511	852	659
60-64	946	495	451
65-69	663	370	293
70-74	474	265	209
75-79	329	193	136
80-84	195	120	75
85 urtekoak eta gehiagokoak	202	139	63

Iturria: EIN.

1.9. taula. Atzerritar biztanleria jatorrizko kontinentearen arabera. 2005.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%	
Europa	19621	8581	43,7	11040	56,3	
Afrika	13441	3925	29,2	9516	70,8	
Amerika	33013	19518	59,1	13495	40,9	
Asia	3661	1450	39,6	2211	60,4	
Ozeania	120	41	34,2	79	65,8	
Herrigabeak	5	2	40,0	3	60,0	
Guztira	72894	35511	48,7	37383	51,3	

Iturria: EIN. Udal-errolda 2005.

1.10. taula. EAEko familien batez besteko tamaina. 2003.

Guztira	2,9
Hiriburuak	2,8
100.000 biztanle edo gehiago	3,0
50.000 eta 100.000 biztanle bitarte	3,0
20.000 eta 50.000 biztanle bitarte	3,1
10.000 eta 20.000 biztanle bitarte	3,1
10.000 biztanle baino gutxiago	2,9

Iturria: EIN. Familiako aurrekontuen inkesta jarraitua.


1.2. Ezkontzak

1.11. taula. Ezkontza-kopuruaren eta ezkontza-tasaren bilakaera EAEn. 1975-2005.

	Ezkontzak	Tasa
1975	17.336	8,4
1980	12.314	5,8
1985	9.436	4,4
1990	9.729	4,6
1995	9.587	4,6
2000	10.510	5,1
2004	10.045	4,8
2005	9.479	4,5

Iturria: EUSTAT. Ezkontzen estatistika

1.1. grafikoa. Ezkontza-kopuruaren bilakaera EAEn. 1975-2004.



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen estatistika

1.12. taula. Lehen ezkontzako ezkontideen batez besteko adinaren bilakaera eta sexua, urtearen arabera. 1975-2004.

	Emakumeak Gizonak	
1975	24,9	27,5
1980	24,6	27,0
1985	26,2	28,9
1990	27,4	30,1
1995	29,1	31,7
2000	30,2	32,8
2004	31,3	33,7

Iturria: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

1.13. taula. Ezkontideen batez besteko adinaren bilakaera eta sexua, urtearen arabera. 1986-2005.

	24 urtera arte	25-34	35-49	50 urte baino gehiago
Emazteak				
1986	4.869	4.360	350	106
1990	3.376	6.073	432	107
1995	1.788	7.217	764	101
2000	1.110	8.310	1.298	121
2004	679	7.264	1.647	176
2005	573	6.985	1.628	176
Senarrak				
1986	2.276	6.320	708	167
1990	1.418	7.295	906	174
1995	636	7.465	1.403	191
2000	369	8.030	2.064	272
2004	272	6.568	2.396	328
2005	201	6.235	2.366	370

Iturria: EUSTAT. Ezkontzen estatistika

1.14. taula. Ezkontideen bilakaera, sexuaren eta ezkondu aurretiko egoera zibilaren arabera. 1986-2005.

	Emazteak				Senarrak			
	Guztira	Ezkongabea	Alarguna	Dibortziatua	Guztira	Ezkongabea	Alarguna	Dibortziatua
1986	9.685	9.406	78	201	9.471	9.092	115	264
1990	9.988	9.658	51	279	9.793	9.346	87	360
1995	9.870	9.416	48	406	9.695	9.149	101	445
2000	10.839	10.277	52	510	10.735	10.107	82	546
2004	9.766	9.144	40	582	9.564	8.929	63	572
2005	9.362	8.734	34	594	9.172	8.541	61	570

Iturria: EUSTAT. Ezkontzen estatistika

1.15. taula. Baliogabetasun-, dibortzio- eta banantze-epaiak, lurralde historikoka. 2003.

	Baliogabetasuna	Banantzea	Dibortzioa
Araba	0	420	236
Bizkaia	0	1422	820
Gipuzkoa	2	717	449
Guztira	2	2559	1505

Iturria: EIN. Estatistika judizialak, 2003.

1.16. taula. Baliogabetasun-, dibortzio- eta banantze-epaiak, sexuaren, egoera zibilaren eta lurralde historikoaren arabera. 2003.

		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Banantzea	Guztira	420	420	717	717	1422	1422
	Ezkongabea	412	404	646	654	1276	1280
	Alarguna	0	1	4	5	6	10
	Dibortziatua	8	15	37	32	46	53
	Ez da ageri	0	0	30	26	94	79
Dibortzioa	Guztira	236	236	449	449	820	820
	Ezkongabea	227	232	411	413	730	726
	Alarguna	0	0	1	2	2	3
	Dibortziatua	9	4	20	19	21	35
	Ez da ageri	0	0	17	15	67	56

Iturria: EIN. Estatistika judizialak, 2003.

1.17. taula. Baliogabetasun-, dibortzio- eta banantze-epaiak, adin-taldeen eta lurralde historikoen arabera. 2003.

		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Banantzea	Guztira	420	420	717	717	1422	1422
	Ez da ageri	2	2	17	18	73	71
	18 urtera arte	0	0	0	0	0	0
	19-24	11	4	12	6	27	7
	25-29	52	22	88	39	154	82
	30-34	99	82	154	116	309	226
	35-39	103	106	152	153	287	295
	40-49	107	138	197	238	407	495
	50-59	36	47	74	118	125	177
	60-69	9	16	16	22	33	55
	70 urtekoak eta gehiagokoak	1	3	7	7	7	14
Dibortzioa	Guztira	236	236	449	449	820	820
	Ez da ageri	1	0	15	14	48	46
	18 urtera arte	0	0	0	0	0	0
	19-24	4	0	3	1	14	3
	25-29	25	15	29	16	76	32
	30-34	51	32	88	65	151	111
	35-39	56	57	100	82	164	174
	40-49	75	88	140	160	250	284
	50-59	22	37	58	83	90	129
	60-69	1	6	12	24	25	31
	70 urtekoak eta gehiagokoak	1	1	4	4	2	10

Iturria: EIN. Estatistika judizialak, 2003.

1.18. taula. Baliogabetasun-, dibortzio- eta banantze-epaiak, demanda jartzen duenaren arabera. 2003.

	Emaztea			Senarra		Biak		Ez da ageri	
	Guztira	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	656	188	28,7	127	19,4	338	51,5	3	0,5
Gipuzkoa	1168	247	21,1	136	11,6	738	63,2	47	4,0
Bizkaia	2242	631	28,1	364	16,2	1156	51,6	91	4,1
EAE	4066	1066	26,2	627	15,4	2232	54,9	141	3,5

Iturria: EIN. Estatistika judizialak, 2003.

1.19. taula. Banantzeak zergatien eta lurralde historikoen arabera. 2003.

	Guztira	Adostasunezkoa	Adostasunik gabekoa
Araba	420	370	50
Gipuzkoa	717	632	85
Bizkaia	1422	1187	235

Iturria: EIN. Estatistika judizialak, 2003.

1.20. taula. Dibortzioak zergatien eta lurralde historikoen arabera. 2003.

	Guztira	Adostasunezko dibortzioa	Adostasunik gabekoa
Araba	236	186	50
Gipuzkoa	449	329	120
Bizkaia	820	595	225

Iturria: EIN. Estatistika judizialak, 2003.

1.21. taula. Banantzeak, baliogabetasuna eta dibortzioa EAEn, ezkontzaren iraupenaren arabera. 2003.

	Dibortzioak	Baliogabetasunak	Banantzeak
Guztira	1505	2	2559
Ez da ageri	41	0	68
1 - 2 urte	51	1	306
3 - 5 urte	215	1	383
6 - 10 urte	316	0	456
11 - 15 urte	253	0	410
16 - 20 urte	138	0	237
21 urte eta gehiago	491	0	699

Iturria: EIN. Estatistika judizialak, 2003.

1.22. taula. Banantzeak, elikadurazko pentsioaren arduraduna den pertsonaren arabera. 2003.

	Guztira	Ama	Aita	Biak	Ez da ageri
Araba	656	8	338	7	303
Gipuzkoa	1168	16	571	12	569
Bizkaia	2242	24	1018	53	1147
EAE	4066	48	1927	72	2019

Iturria: EIN. Estatistika judizialak, 2003.

1.3. Jaiotzak

1.23. taula. EAeko jaiotza-kopurua sexuaren arabera. 2004.

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
EAE	19.594	10.089	9.505
Araba	2.809	1.452	1.357
Bizkaia	9.996	5.159	4.837
Gipuzkoa	6.789	3.478	3.311

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

1.24. taula. Bizirik jaiotako pertsonak eta jaiotza-tasa 1.000 biztanleko eta lurralde historikoko. 1975-2004.

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Jaiotakoak	Tasa	Jaiotakoak	Tasa	Jaiotakoak	Tasa	Jaiotakoak	Tasa
1975	39.646	19,1	4.833	20,4	22.075	19,1	12.738	18,7
1980	28.812	13,5	3.917	15,3	16.569	13,9	8.326	12,0
1985	20.970	9,8	3.008	11,2	11.582	9,8	6.380	9,2
1990	16.361	7,8	2.290	8,4	8.724	7,5	5.347	7,9
1995	15.322	7,3	2.082	7,4	7.879	6,9	5.361	7,9
2000	17.316	8,3	2.487	8,8	8.818	7,9	6.011	8,9
2004	19.594	9,3	2.809	9,6	9.996	8,8	6.789	10,0

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

1.25. taula. Jaiotza-tasak Europar Batasuneko estatuetan. 2001.

	Tasa
Alemania	--
Austria	9,3
Belgika	11,1
Zipre	11,6
Danimarka	12,2
Eslovakia	9,5
Eslovenia	8,8
Espainia	10,1
Estonia	9,3
Finlandia	10,8
Frantzia	13,0
Grezia	9,4
Hungaria	9,5
Irlanda	15,1
Italia	9,2
Letonia	8,3
Lituania	9,1
Luxenburgo	12,4
Malta	--
Herbehereak	12,6
Polonia	9,5
Portugal	11,0
Erresuma Batua	11,4
Txekiar Errepublika	8,9
Suedia	10,3

Iturria: EUROSTAT. Regions: Statistical yearbook.

1.26. taula. Ugalkortasun-tasa orokorraren bilakaera. 1975-2004.

	Tasa
1975	80,6
1980	54,5
1985	38,8
1990	29,8
1995	27,5
2000	32,0
2004	37,2

Iturria: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

1.27. taula. Ugalkortasun-tasa orokorraren bilakaera, adin-taldeen arabera. 1975-2004.

	15etik 19 urtera	20tik 24 urtera	25etik 29 urtera	30etik 34 urtera	35etik 39 urtera	40tik 44 urtera	45etik 49 urtera
1975	16,2	129,9	200,6	125,8	59,6	20,4	1,8
1980	16,2	86,2	132,6	85,1	38,7	10,7	1,1
1985	9,2	43,7	103,9	67,7	25,3	6,6	0,7
1990	4,7	24,4	73,7	71,0	20,6	3,3	0,2
1995	2,7	11,8	53,0	83,6	29,4	2,7	0,1
2000	3,1	10,8	42,9	98,5	47,4	5,5	0,1
2004	4,7	13,7	44,5	104,8	60,7	8,7	0,3

Iturria: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

1.28. taula. Ugalkortasun-tasa sintetikoaren (emakumeko batez besteko seme-alaba kopurua) bilakaera EAEn. 1975-2004.

Tasa	
1975	2,8
1980	1,9
1985	1,3
1990	1,0
1995	0,9
2000	1,0
2004	1,2

Iturria: EIN

1.29. taula. Espero diren jaiotza- eta ugalkortasun-adierazleak, lurralde historikoen eta urtearen arabera. 2004-2015

	EAE			Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Jaiotzak	Tasa gordina ‰	UTS	Jaiotzak	Tasa gordina ‰	Jaiotzak	Tasa gordina ‰	Jaiotzak	Tasa gordina ‰
2004	20,2	9,6	1,2	2,9	9,9	10,9	9,6	6,4	9,5
2005	20,8	9,9	1,3	3,0	10,1	11,2	9,9	6,6	9,7
2006	21,4	10,1	1,3	3,1	10,4	11,5	10,1	6,8	9,9
2007	21,9	10,3	1,4	3,2	10,6	11,8	10,3	6,9	10,1
2008	22,3	10,4	1,4	3,3	10,8	12,0	10,5	7,0	10,3
2009	22,7	10,6	1,4	3,4	11,0	12,2	10,6	7,1	10,4
2010	23,0	10,7	1,5	3,5	11,1	12,3	10,7	7,2	10,5
2011	22,5	10,4	1,5	3,5	10,9	12,0	10,4	7,0	10,2
2012	22,0	10,1	1,5	3,4	10,7	11,7	10,1	6,9	9,9
2013	21,4	9,8	1,5	3,4	10,4	11,4	9,8	6,7	9,6
2014	20,9	9,5	1,5	3,3	10,2	11,0	9,5	6,5	9,3
2015	20,3	9,3	1,5	3,3	10,0	10,7	9,2	6,3	9,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren proiektzioak.

1.30. taula. Bizirik jaiotako pertsonak lurralde historikoen eta jaiotza-ordenaren arabera. 1986-2005.

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	1.a	2.a	3.a edo gehiago	1.a	2.a	3.a edo gehiago	1.a	2.a	3.a edo gehiago	1.a	2.a	3.a edo gehiago
1986	10.198	7.282	2.614	1.433	924	336	5.574	3.948	1.459	3.191	2.410	819
1990	8.780	6.156	1.425	1.215	860	215	4.744	3.234	746	2.821	2.062	464
1995	8.885	5.474	963	1.203	758	121	4.697	2.727	455	2.985	1.989	387
2000	9.936	6.381	999	1.418	902	167	5.208	3.145	465	3.310	2.334	367
2004	11.206	7.023	1.219	1.645	982	145	5.802	3.519	603	3.759	2.522	471
2005	11.284	7.078	1.222	1.607	998	147	5.897	3.580	595	3.780	2.500	480

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

1.31. taula. Amen batez besteko adinaren bilakaera, urtearen arabera. 1975-2004

Batez besteko adina	
1975	28,8
1980	28,6
1985	29,0
1990	29,7
1995	31,1
2000	32,1
2004	32,4

Iturria: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.

1.32. taula. EAEn bizirik jaiotakoen kopurua, amaren adinaren arabera. 2005.

Guztira		19.584
14 urte eta gutxiago		2
15-19		218
20-24		848
25-29		3.509
30-34		8.920
35-39		5.267
40-44		792
45 eta gehiago		28

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

1.33. taula. Bizirik jaiotako pertsonak, lurralde historikoaren eta amaren egoera zibilaren arabera. 2005.

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Ezkondua	Ezkongabea	Ezkondua	Ezkongabea	Ezkondua	Ezkongabea	Ezkondua	Ezkongabea
1986	18.916	1.178	2.544	149	10.329	652	6.043	377
1987	17.453	1.140	2.409	163	9.537	611	5.507	366
1988	16.830	1.191	2.412	165	9.095	629	5.323	397
1989	15.762	1.262	2.209	180	8.364	660	5.189	422
1990	15.095	1.266	2.132	158	8.072	652	4.891	456
1991	14.929	1.299	2.086	190	7.871	686	4.972	423
1992	14.769	1.481	2.017	204	7.804	783	4.948	494
1993	14.344	1.457	2.018	221	7.459	744	4.867	492
1994	13.784	1.500	1.828	196	7.237	754	4.719	550
1995	13.787	1.535	1.858	224	7.108	771	4.821	540
1996	14.305	1.682	1.997	252	7.324	824	4.984	606
1997	14.321	2.004	1.950	276	7.338	995	5.033	733
1998	14.039	2.074	1.942	307	7.173	1.043	4.924	724
1999	14.495	2.292	1.979	342	7.501	1.098	5.015	852
2000	14.679	2.637	2.119	368	7.496	1.322	5.064	947
2001	14.772	2.875	2.037	399	7.550	1.490	5.185	986
2002	14.861	3.272	1.980	511	7.716	1.656	5.165	1.105
2003	15.437	3.830	2.168	526	7.892	1.914	5.377	1.390
2004	15.176	4.272	2.135	637	7.694	2.230	5.347	1.405
2005	15.032	4.552	2.090	662	7.764	2.308	5.178	1.582

Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

1.34. taula. EAEko jaiotzak, amaren jardueraren eta adinaren arabera. 2004.

	Guztiak	Aktiboak	%	Ez- aktiboak	%
Guztiak	454591	256971	56,5	197620	43,5
15 urte baino gutxiagokoak	140	7	5,0	133	95,0
15 eta 19 urte bitartekoak	12356	1381	11,2	10975	88,8
20 eta 24 urte bitartekoak	44975	13535	30,1	31440	69,9
25 eta 29 urte bitartekoak	115701	61440	53,1	54261	46,9
30 eta 34 urte bitartekoak	177115	114149	64,4	62966	35,6
35 eta 39 urte bitartekoak	89287	57539	64,4	31748	35,6
40 eta 44 urte bitartekoak	14345	8543	59,6	5802	40,4
45 eta 49 urte bitartekoak	628	359	57,2	269	42,8
50 urtekoak eta gehiagokoak	44	18	40,9	26	59,1

EIN: Biztanleriaren mugimendu naturala.

1.4. Heriotzak

1.35. taula. Heriotzak eta heriotza-tasak, lurralde historikoaren arabera. 1975-2005.

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Heriotzak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Heriotzak	Tasa
1975	14.699	7,1	1.534	6,5	8.439	7,3	4.726	7,0
1980	14.254	6,7	1.537	6,0	8.455	7,1	4.262	6,1
1985	15.465	7,2	1.636	6,1	8.850	7,5	4.979	7,2
1990	16.404	7,8	1.886	6,9	9.387	8,1	5.131	7,6
1995	17.504	8,3	2.048	7,3	9.829	8,6	5.627	8,3
2000	18.242	8,8	2.191	7,7	10.214	9,1	5.837	8,7
2003	19.305	9,4	2.357	8,2	10.684	9,7	6.264	9,4
2005	18.821	8,8	2.382	8,0	10.465	9,2	5.974	8,7

Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

1.36. taula. Heriotza-tasak Europar Batasuneko estatuetan. 2001

Tasa	
Alemania	--
Austria	9,2
Belgika	10,1
Zipre	6,9
Danimarka	10,9
Eslovakia	9,7
Eslovenia	9,3
Espainia	8,9
Estonia	13,6
Finlandia	9,4
Frantzia	8,9
Grezia	9,4
Hungaria	13,0
Irlanda	7,8
Italia	9,5
Letonia	14,0
Lituania	11,6
Luxenburgo	8,4
Malta	--
Herbehereak	8,7
Polonia	9,4
Portugal	10,2
Erresuma Batua	10,2
Txekiar Errepublika	10,5
Suedia	10,5

Iturria: EUROSTAT. Regions: Statistical yearbook.

1.37. taula. Heriotzak lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2005.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%	
EAE	18.821	8.863	47,1	9.958	52,9	
Araba	2.382	1.070	44,9	1.312	55,1	
Bizkaia	10.465	4.949	47,3	5.516	52,7	
Gipuzkoa	5.974	2.844	47,6	3.130	52,4	

Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

1.38. taula. Heriotzak adin-taldeen, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2003

Guztira	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Ema.	Giz.	Guztira	Ema.	Giz.	Guztira	Ema.	Giz.	Guztira	Ema.	Giz.
Guztira	19.305	9.255	10.050	2.357	1.128	1.229	10.684	5.100	5.584	6.264	3.027	3.237
0	56	26	30	4	1	3	31	16	15	21	9	12
1 - 18	50	19	31	7	3	4	30	15	15	13	1	12
19 - 29	158	46	112	12	5	7	99	28	71	47	13	34
30 - 40	336	102	234	38	8	30	191	66	125	107	28	79
41 - 50	709	225	484	85	30	55	398	125	273	226	70	156
51 - 60	1344	372	972	159	44	115	760	209	551	425	119	306
61 - 70	2285	644	1641	265	70	195	1280	378	902	740	196	544
71 - 80	5082	1915	3167	600	217	383	2909	1110	1799	1573	588	985
81 - 90	6386	3729	2657	791	466	325	3434	1991	1443	2161	1272	889
91 - 100	2789	2086	703	384	273	111	1494	1116	378	911	697	214
100 baino gehiago	110	91	19	12	11	1	58	46	12	40	34	6

Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

1.39. taula. EAEko suizidio-kopurua, adin-taldeen eta sexuaren arabera. 2004.

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
29 urte artekoak	0	12	12
30 eta 49 urte bitartekoak	10	29	39
50 urtekoak eta gehiagokoak	7	34	41
Ez da ageri	3	11	14
GUZTIRA	20	86	106

Iturria: EIN. Espainiako suizidioen estatistika.

1.40. taula. Suizidio-kopurua, seme-alabak izatearen ala ez izatearen eta sexuaren arabera. 2004.

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Bai	11	23	34
Ez	2	22	24
Ez da ageri	7	41	48
Guztira	20	86	106

Iturria: EIN. Espainiako suizidioen estatistika.

2. LANA

2.1 UGALKETA-LANA

Merkatu-azterketek biztanleriaren sailkapena enpleguaren arabera ezartzen duten arren, enpleguak ez du pertsona guztien jarduera neurtzen gizartean. Aitzitik, lanaren ikuskera zabalean, lan produktiboaz edo ordainduaz gain, ugalketa-lana ere sartzen da, hots, ugalketarekin eta pertsonak zaintzearekin zerikusia duten eginkizun guztiak. Etxeko lana edo ugalketakoa familia-nukleoaren egunerokotasunerako eta kideen behar fisikoak eta psikologikoak asetzeko eginkizunen konbinazioa da. Estatistika-azterketa gehienek lan ordainduari dagokion zatiaren analisisa egiten dute, ordaindu gabeko lana alde batera utzita.

Administrazio publikoek ugalketa-lanari gero eta arreta handiagoa eskaintzen dioten arren, gaur egun dauden estatistika-azterketarako iturriak ez dira nahikoa fenomeno hori neurtzeko, eta zeharkako hurbilketarako aukera baino ez dute ematen, zenbait daturen bidez. Esate baterako, denboraren erabilerari buruzko inkesta, aktiboen sailkapena Jarduerari buruzko biztanleriaren inkestaren (PRA) arabera, eta EUSTATEk egindako etxeko produkzioari buruzko kontu sateliteena. Denboraren erabilerari buruzko inkestaren datu berrienak ikerketa-talde honek egindako aurreko *Euskadiko gizonen eta emakumeen egoerari buruzko zifrak* txostenetan argitaratu ziren. Merkatuak ez-aktibotzat jotzen dituen jarduerak eta ugalketa-lana neurtzeko erreferentzia diren datu berrienak PRA inkestak eta etxeko produkzioaren kontu sateliteei buruzkoak dira.

Jarduerari buruzko biztanleriaren inkestaren ildo nagusia pertsona aktiboen, okupatuen eta langabeen azterketa sozio-ekonomikoa da, eta pertsona ez-aktibo guztiak hartzen ditu bere baitan talde bakar batean,

hau da, lan-merkatutik kanpo daudenak. Hala ere, lanaren kontzeptutik hurbilago dagoen jardueraren beste sailkapen bat ere badu; hain zuzen, lan-jarduera duten pertsonak, lanez kanpokoak dutenek eta pertsona ez-aktiboak osatutakoa.

Sailkapen horrek banakoak jardueraren arabera banatzen ditu, dela lan-jarduera edo lanez kanpokoak. Hauek dira talde nagusiak: batetik, lan-jarduera duen biztanleria, lan ordaindua duten pertsonak osatua, pertsona enplegatzailearen eta pertsona enplegatuen arteko ingurunean edo langile independente gisa, familia-negozioetan doan lan egiten dutenak barne. Talde hori txosten honetako biztanleria aktiboaren barruan aztertzen da. Bestetik, lanez kanpoko jarduerak duen biztanleria dago: bertan daude enplegurik ez duten pertsonak, enplegatzaile baten zerbitzura ez daudenak, etxeko lanak egiten dituztenak eta ikasten ari direnak. Hauek dira talde nagusiak: Lanez kanpoko jarduerak dituztenak, enplegu bila ez dabiltzanak eta soilik etxeko lanak egiten edo ikasten ari direnak, eta gainerakoak. Azken horietan, horrelako jarduerak izateaz gain, lan bila dabiltzanak eta lanerako prest daudenak sartzen dira. Azkenik, inolako jarduerarik gabeko biztanlerian, langabe hertsia, enplegu bila dabiltzanak eta lanpostu bat berehala betetzeko prest daudenak sartzen dira. Erretiratu hertsia eta beste batzuk: adinagatik edo egoera fisikoagatik inolako jarduerarik egiten ez dutenak (pentsiodunak, lanerako ezinduek eta abar)

Lanez kanpoko jardueretan aritzen diren pertsonak, etxeko lanak egiten dituztenak eta ikasleak dira gehienak. Hala, emakumeen eta gizonen egoeraren berdintasuna lortzeko prozesuan, 1985 eta 2005 artean lanez kanpoko jarduerak zutenen artean gizonen presentziak gora egin duen arren, 2005ean lan-merkatuan sartzeko asmorik gabe ikasten edo etxeko lanak egiten ari diren hamar pertsonatik ia zortzi emakumeak dira. Aitzitik, langabe hertsien taldean, lau pertsonatik hiru gizonak dira.

Bilakaeraren analisiak berdintasunerako bidean joera positiboak erakusten dituen arren, 2005eko datuek panorama desberdina erakusten dute. Sexuen arteko desberdintasunak nabarmenak dira jardueraren arabera, bereizitako kategorien banaketaren analisian. Emakumeen % 92,9 jarduera duen biztanleriaren zati da, eta horien erdiak baino gehiagok lanez kanpoko jarduera dute. Gizonei dagokionez, berriz, % 77,3 biztanleria aktiboaren zati da, eta horien % 80,4k lan-jarduera du. Bestalde, jarduerarik gabeko hamar pertsonatik bederatzia erretiratu hertsia, pentsionistak edo ezintasunak dituztenak dira. Ordaindu gabeko lana neurtzeko beste modu bat kontu sateliteen bidezkoa da.

1993. urteaz geroztik, EUSTATEk txosten bat egiten du, bost urtetik behingo etxeko produkzioaren kontu sateliteak biltzeko. Azken azterketan adierazten da EAeko etxeko produkzio ez-ordaindua ehuneko bost txikitu dela eta kota baxuetan kokatu dela, Kanadan, Zeelanda Berrian, Norvegian, AEBetan eta Frantzia bezala. Hala ere, herrialde horietan, lan horietan ez dago EAEn adinako desberdintasunik emakumeen eta gizonen artean. EAeren kasuan, 2003an, etxeko produkzio ez-ordainduko % 75 emakumeak ziren, Eustatek igorritako prentsa-oharrak adierazitako moduan. Datuak eginkizun-moten arabera banatuta, etxeko produkzioan gizonen proportzio handiagoa duten funtzio bakarrak mantentze-zerbitzua (% 86) eta kudeaketa (% 58,2) dira. Bestalde, gizonen eta emakumeen arteko proportzioa berdintasunezkoagoa da erdi-aisiarekin (% 50,7), ibilbideekin (% 45,9) eta ondasun iraunkorrek erostearekin (% 42,2) lotutako eginkizunetan. Gainerakoetan, emakumeen presentzia adierazitako batez bestean edo hortik gora kokatzen da; zentzu horretan, arroparekin (% 90,5), garbiketarekin (% 85,5) eta janaria prestatzearekin (% 82,4) lotutako eginkizunak azpimarratu behar dira.

2.2 ENPLEGUA

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoera sozioekonomikoen desberdintasunak deigarriak dira, oraindik ere, 2005ean. Enpleguarekin, ordaindutako lanarekin, zuzenki lotutako diru-sarrerek eragin handia dute pertsonen estatus sozioekonomikoan. Berdintasunaren borrokako ildo estrategikoak eta mendebaldeko gizarteetako garapen ekonomikoa lortzeko, gero eta urriagoa den eskulan kualifikatua eta prestatua lan-munduan sartu behar da; hau da, prestatu ondoren lan-merkatua bertan behera uzten duten emakumeak bizitza aktiboan sartu behar dira. Hala ere, jarduerari buruzko biztanleria-inkesta oinarri hartuta EUSTATEk landutako datuek, enpleguari buruz EINEk egindakoaren datuek eta INEMek eta LANGAIk langabeziari eta kontratuei buruz egindakoek emakumeen eta gizonen arteko diferentzia nabarmenak adierazten dituzte.

2.2.1. Oinarrizko enplegu-tasak

Enplegu-estatistikek bi kategoria nagusitan sailkatzen dituzte pertsonak: aktibotan eta ez-aktibotan. Biztanleria aktiboa enplegua duten pertsonak eta lan-merkatuan sartzeko prest daudenen osatzen dute, eta biztanleria ez-aktiboa, berriz, 16 eta 65 urte arteko gainerako pertsonak; hau da, etxeko lanak egiten dituztenek, ikasten ari direnek, erretiratuek, pentsiodunek, errentadunek eta ezinduek. Kategorizazio horrek lan egiteko adinean daudenak lan-merkatuaren kanpoan eta barruan daudenen artean banatzen ditu.

Jarduera-tasari (enplegua dutenen edo lan-merkatuan sartzeko prest daudenen ehunekoa lan egiteko adinean dauden pertsona guztiekiko) esker, gizonen eta emakumeen arteko alderaketa egin daiteke. Gero eta emakume gehiago ari dira sartzten lan-munduan, baina gizonekiko diferentzia 20,3 ehunekokoa da. Azken bost urteetan, emakumeen

jarduera-tasa hiru puntu hazi eta % 44,9ra iritsi da. Hala ere, emakumeen jarduera-tasak ez du betetzen Stockholmen 2001eko martxoan egindako Kontseilu Europarraren gailurrean aurreikusitako helburua: emakumeen jarduera % 57ra iristea.

Enplegurako lehen urratsa lan-merkatuan sartzea da, eta bigarrena biztanleria okupaturen zati izatea. EAEn, emakumeen okupazio-tasaren bilakaerak (biztanleria aktibo okupatuaren ehunekoa) jarduera-tasaren ezaugarri berberak ditu; hau da, joera goranzkoa izan arren, gizonetikiko diferentzia 20 ehunekokoa da, oraindik ere. Egia da EAEko emakumeen okupazio-tasak bilakaera positiboa izan duela azken hamar urteetan. Izan ere, hogeitahuneko handitu da, % 54,8ra iristeraino, baina nazioarteko egoerarekin alderatuz gero, aldea nabarmena da. Estatuko emakumeen okupazio-tasa EAEkoa baino txikiagoa den arren, 25en Europar Batasuneko herrialdeen batez bestekoa handiagoa da. EAEko emakumeen jarduera-tasa iparraldeko herrialdekoekin —esate baterako, Finlandia, Erresuma Batua, Herbehereak eta Danimarka— parekatzeko, 7 urte beharko liriateke hazkundera etengabea balitz, eta badirudi ez dela hala izango.

Okupazio-tasen genero-hesiak —hau da, gizonen eta emakumeen okupazio-tasen arteko diferentziak— beherako joera du Europar Batasuneko herrialde guztietan, AEBetan eta Japonian. Bilakaerak 1995eko genero-hesia erakusten du, bai eta 2004an zenbat txikitu den ere. Emakumeen eta gizonen okupazio-tasan diferentziarik handieneko herrialdeak dira hesi horretan beherako bilakaerarik handiena dutenak. Hala, Luxenburgon, Holandan, Alemanian, Italian, Portugalen, Belgikan, Irlandan, Grezian, Espainian eta EAEn % 10 eta 6 artean txikitu da diferentzia. Dena den, herrialde horiek —Alemania eta Portugal izan ezik— okupazio-tasan genero-hesi handiena zuten 10 herrialdeen artean zeuden 1995ean. Joerak bere horretan jarraitzen badu EAEn, ondorengo urteetan genero-hesia polikiago txikituko da.

Langabezia-tasak, lanik gabe dagoen biztanleria aktiboaren ehunekoak, txikitzen jarraitzen du. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko lehenagoko txostenek diotenez, langabezia-tasa 1993 arte handitzen joan zen, % 24,4ra iristeraino (emakumeena % 34,4koa eta gizonezkoena % 18,1koa). Ondoren, tasa txikitzen joan da, eta gaur egun, % 5,7koa da. Emakumeen langabezia-tasaren beherakada gizonena baino bertikalagoa izan da, eta hala, bien arteko diferentzia murriztu egin da. Euskadiko jarduerari buruzko biztanleriaren inkestaren datuen arabera, 2005erako emakumeen langabezia-tasa % 7koa izango da, eta gizonena, % 4,7koa.

2.2.2. Biztanleria aktiboa

Lan egiteko adinean daudenak —hots, 16 urtetik gorakoak— 1.821.700 pertsona dira, eta horien erdia baino pixka bat gehiago —% 51,4 hain zuzen—, emakumeak. Sexua aintzat hartuz gero, biztanleria horretako diferentzia konstantea da. Aitzitik, biztanleria aktiboa aintzat hartzen bada —lana duten edo lana egiteko prest dauden pertsonak, alegia—, proportzioa alderantzizkoa da. Hala, 998.200 pertsona aktiboetatik % 42,1 bakarrik dira emakumeak. Hala ere, pertsona aktiboen arteko emakumeen proportzioa 10 ehuneko handitu da, azken 20 urteetan.

Biztanleria aktiboa biztanleria okupatuan eta langabetuan banatzen da, eta azken hori lehen enpleguaren bila dabilzanek osatzen dute. 2005erako datuek aurreko urteetan gertatutako errealitate bat erakusten dute, hau da, lan-egoera txarretan emakume gehiago daudela gizonak baino. Hala, gizonak gehiengoa dira pertsona okupatuaren artean: 550.300 guztira 941.200etik. Dena den, egoera txarretan emakumeen proportzioa handiagoa da; esate baterako, langabezia eta lehen enpleguaren bila dabilzan langabetuen artean. Azken kasu horretan, emakumeak % 58 dira.

Pertsona aktiboei buruzko beste adierazle bat enpresarekiko harremana neurtzen duen lan-egoera da. Zuzendaritza- eta kudeaketa-funtzioak gizonen esku daude oraindik ere, eta kooperatibisten, autonomoen eta enplegatzaileen % 60 baino gehiago gizonak dira. Aitzitik, familia-laguntzak jasotzen dituzten 10 pertsonatik 7 emakumeak dira.

Sektorekako analisia ibilbide desberdinen beste erakusgarri klasiko bat da. Nekazaritzan, industrian eta eraikuntzan, biztanleria aktiboaren laurdena baino gehiago gizonak dira, eta gizonen proportziorik handiena azken sektore horretakoa da: % 92,5. Dena den, emakumeak zerbitzu-sektoreko langileen % 56 dira. Langile gehien dituen sektorea izan arren, lan-baldintza txarrenak ditu: ezegonkortasuna, soldata kaxkarrak... Adierazle hori gizonak eta emakumeak bereizita hautemanetz gero, sektorekako banaketan generoaren eragina argi eta garbi ikusten da. Emakumeen biztanleria aktiboaren % 84,7 zerbitzu-sektorean ari da lanean. Gizonen kasuan, berriz, proportzioak orekatuagoak dira eta zerbitzu-sektoreak eta industria dira nagusi.

Biztanleria aktiboaren beste sailkapen bat jarduerari buruzkoa da: lan-jarduera duen biztanleria, lanez kanpoko jarduera duena eta jarduerarik gabea. Lan-jarduera duen biztanleria lan ordaindua duten pertsonak osatzen dute, pertsona enplegatzailearen eta pertsona enplegatuen arteko ingurunean edo langile independente gisa, familia-negozioetan doan lan egiten dutenak barne. Azken hogeitun urteetan, 1985az geroztik, lan-jarduera duen biztanleriaren artean gero eta emakume gehiago daude: lehen % 28,1 ziren, eta gaur egun, % 41,5. Hala ere, genero-hesia 17 ehunekokoa da. Biztanleria-talde horren barruan, hiru okupazio-maila bereizten dira: gainokupazioa (astean 45 ordu edo gehiago lan egitea), okupazio hertsia (astean 15 eta 44 ordu artean lan egitea) eta gainerakoak (15 ordu baino gutxiago).

1985az geroztiko datuek bi joera garbi adierazten dituzte. Batetik, okupazio-denbora txikitu ahala, emakumeen proportzioa handitu egiten da. 2005ean, emakumeak pertsona okupatuen % 22,1 ziren, pertsona okupatu hertsien % 42,1 eta astean 15 ordutik beherako okupazioa zutenen gehiengoa (% 82,7). Bestalde, 1985az geroztik, emakumeen proportzioak gora egin du ia kategoria guztietan, gero eta gehiago ari baitira sartzen lan-munduan. Dena den, igoera handiagoa da okupazio-denbora txikiagoa eskatzen duten kategorietan; esate baterako, astean 15 ordu baino gutxiagoko lan-jardunaldia dutenen artean, emakumeen proportzioa ia bikoitza da, hertsiki okupatuen igoera % 14,9koa, eta superokupatuen joera alderantzizkoa da: % 23,1etik % 22,1era jaitsi da.

2.2.3. Biztanleria okupatua

Biztanleria aktiboa bi taldek osatzen dute: biztanleria okupatuak eta biztanleria langabeak. Biztanleria aktiboan 1985az geroztik emakumeen proportzioak gora egin duen moduan, okupazioari dagokionez ere, emakumeen eta gizonen mailaren arteko desberdintasunak txikitzen joan dira. Hala ere, emakumeen adierazlea % 41,5ean dago oraindik; hau da, gizonekiko diferentzia 16,9 ehunekokoa da. Emakumeen presentziak gora egin du sektore guztietan, nekazaritzan izan ezik. Izan ere, sektore horretan txikitu egin da: % 28,3tik % 23,2ra pasatu da. Emakumeen proportzioaren hazkundera antzekoa da kasu guztietan, azken hogeitun urteetan (% 6,4 eraikuntzan; % 8,3 industrian eta % 13,3 zerbitzuetan).

Okupazioa xehetasun askoko fenomeno da, kontratu-motaren, lan-jardunaldiaren edo lan-egoeraren arabera azter daitekeena. Kategoria guztietan, maila eskasenetan emakumeen proportzioa izaten da handiena. Kontraturik gabeko pertsona okupatuen artean, emakumeak % 77,2 ziren 2005ean, azken 10 urteetan diferentzia txikitu egin den arren. Behin-behinekotasunak ere gehiago eragiten die emakumeei. Kontratatuak gizonen % 76,4k lan-kontratu mugagabea edo finkoa

du, eta emakumeen kasuan, lan-kontratu mugagabea % 69k baino ez du. Diru-sarreretan eragin zuzena duten lan-jardunaldien motei dagokienez, lanaldi osoa duten emakumeen kopurua % 33,9 eta % 35 bitartekoa izan da, 2005eko hiruhilekoetan. Lanaldi partziala duten emakume okupatuak % 25 inguru izan dira, eta gizonak, % 5 baino gutxiago.

Lan ordainduaren dedikazioa neurtzeko beste adierazle bat ohiko lan-orduen batez bestekoa da. EUSTATEk 2005ean argitaratutako 2001eko Biztanleen eta Etxebizitzen Zentsuko datuek erakusten dute kategoriaz guztietan emakumeen batez besteko orduen kopurua txikiagoa dela, bai lan-egoeren arabera, bai lanbidearen adarraren edo motaren arabera. Desberdintasun handiak sortzen dira familia-laguntzak jasotzen dituzten pertsonen eta ebentualen artean, lan-egoera dela-eta. Lanbideari dagokionez, gizonen eta emakumeen arteko diferentzia nabarmenenak arrantza eta nekazaritzakoak (18,8 ordu), etxeko langileak dituzten etxeetakoak (9,7 ordu) eta ostalaritzakoak dira (7,2 ordu). Lanbide-motaren araberako sailkapena aintzat hartuta, diferentziak txikitzen ari dira, bereziki zerbitzuen sektoreko kualifikazio gabeko langileen kasuan, zerbitzu hauek izan ezik: garraioak (5,7 ordu), sukaldaritza-zerbitzuko eta zerbitzu pertsonaletako langileak (4,8 ordu) eta dendariak eta antzekoak (2,9 ordu).

Azkenik, biztanleria okupatuaren lan-egoeran biztanleria aktiboan hautemandako fenomeno bera gertatzen da; hau da, gizonak gehiengo dira enplegatzaileen, autonomoen eta kooperatibisten artean. Lan-egoeren arabera emakumeen eta gizonen banaketa bereizita aztertuz gero, diferentziak ez dira oso azpimarragarriak, sektore publikoko soldatuko langileen arteko emakumeen proportzioa izan ezik (emakume okupatuaren % 19,1 eta gizon okupatuaren % 10,4). Hona hemen lan-merkatuko erabaki-esparruetako gizonen proportzioen beste adibide bat: lan-sozietate anonimoetako bazkideen % 87 gizonak dira, eta emakumeak, aldiz, ez dira % 15 baino gehiago, esparru horretan.

2.2.4. Biztanleria langabea, enplegu-eskaria eta kontratazioak.

Biztanleria aktiboan eta okupatuan sexuaren araberako konposizioan gertatzen ari den berdintasunerako apurkako joera eta biztanleria langabearen bilakaera oso bestelakoak dira. Emakumeen langabezia gizonena baino handiagoa da; 2005eko 57.000 langabeetatik % 51,8 emakumeak dira. Kontuan hartuta emakumeen biztanleria aktibo osoa txikiagoa dela, diferentziak esanguratsuak dira. 1990 eta 2005 bitartean gizonen eta emakumeen arteko diferentzia handia izan da, % 10 baino handiagoa. 2000tik gaur egun arte, ordea, diferentziak asko txikitu dira. Biztanleria langabearen adina ere desberdina da emakumeen eta gizonen kasuan. Emakume langabeen % 93k 25 urte edo gehiago ditu eta gizon langabeen kasuan kopuru hori % 88koa da.

Biztanleria langabearen enplegu-eskaria ere desberdina da sexuaren arabera. Emakumeek gehien eskatzen dituzten enpleguak hauek dira: saltzaile, administrazioko langile, garbiketako langile, harreragile-telefonozain, hipermerkatuko apal-betetzaille, dendako kutzazain, etxez etxeko laguntzaile, telefonoguneko operadore eta klinika-laguntzaile. Gizon langabeen artean, aldiz, hauek dira gehien eskatzen diren enpleguak: zamalanetako langile, industria-peoi, igeltsero, furgoneta-gidari, makina-erremintako operadore, garbiketako langile, administrazioko langile eta hipermerkatuko apal-betetzaille. Sexuen arteko kointzidentzia bakarrak administrazioko langilearena eta hipermerkatuko apal-betetzaillearena dira, garbiketako langileen kasuan ere bat etorri arren, kolektibo horren barruko zereginak desberdinak baitira sexuaren arabera. Enplegu-eskariaren eta laneratze-tasarik altuena duten enpleguen artean alde handia dago: etxez etxeko saltzaile, janzkien akabatzaile, enpresako gerente, elkarrizketari edo inkestagile, mekanikari, aseguru-agente eta optikari. Emakumeek eta gizonen gehien eskatutako 25 enpleguetako bakar bat ere ez dago laneratze-tasarik handiena duten 100 enpleguen artean.

Enpleguarekin zerikusia duten taldeen egiturak —biztanleria aktiboa eta ez-aktiboa, okupatua eta langabea— emakumea behin-behinekotasunean kokatzen du, jarduera- eta enplegu-tasa txikiagoak eta aldi baterako kontratuen eta lanaldi partzialen tasa handiagoak dituztela. 2004ko kontratazioei buruz LANBIDEk emandako datuek aurreko urteetako panoramak bere horretan jarraitzen duela adierazten dute. Kontratu partzialetan (lanaldi partzialeko behin-behineko kontratuak, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak ezintasunak dituzten pertsonentzat, lanaldi partzialeko praktikak, lanaldi partzialera bihurtzeko kontratuak eta lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak), aldizkako kontratu finkoetan eta bitarteko kontratuetan % 70 baino gehiago emakumeak dira. Aitzitik, gizonak % 70 baino gehiago diren kontratazio-modalitateak lanaldi osokoak dira, erretiro partzialeko kontratazioak izan ezik.

Kontratazioen behin-behinekotasuna neurtzeko beste adierazle bat lehenagoko kontratuen kopurua da. Datuak sexuaren arabera banatuz gero, emakumeen kontratazioen behin-behinekotasuna agerian uzten da. Kontratu-kopuruaren araberako biztanleriaren sailkapenean kontratu-kopurua handitu ahala, emakumeen proportzioa handiagoa da, 50 kontratutik gora izan ezik. Esate baterako, 2004an kontratatutako pertsonen % 58,5 -lehenago kontrataturik izan gabeak-gizonak dira, eta ordura arteko lan-bizitzan 20 eta 50 kontratu artean izan dituzten pertsona gehienak, berriz, emakumeak (% 61,2).

Matrikulazioan, sexuen arteko diferentzia agerian geratzen da, ikasleek mota jakin bateko ikasketak aukeratu behar dituztenean. Batxilergoa edo heziketa-zikloak aukeratzen dituztenen artean eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketa-adarretan ikusten da hori.

Azken urteotan, lanbide-heziketako ikasketa-modalitateetan berrikuntzak sartu diren arren, ohiko ikasketei eutsi egin zaie. Oraindik ere adar batean (irudi pertsonala, goi-mailakoa) ikasle guztiak sexu berekoak diren arren, 2004/2005 ikasturtean fenomeno hori ia-ia desagertu egin dela esan daiteke.

Dena dela, oraindik ere diferentzia nabarmenak daude emakumeen eta gizonen artean, hezkuntza-ibilbidea aukeratzean. Erdi-mailako prestakuntza-ikasketetan, 5 adarretan bakarrik esan daiteke emakumeen eta gizonen presentzia nahikoa proportzionala dela, hau da, sexu baten presentzia ez dela % 75 baino handiagoa. Aitzitik, adar asko eta asko gizonezkoenak dira nagusiki. Esate baterako, itsas eta arrantza-jarduerak, elektrizitatea eta elektronika, ibilgailu autopropultsatuen mantentze-lanak, fabrikazio mekanikoa, produkzioaren mantentze-lanak eta zerbitzuak, eraikuntza eta obra zibilak, zurgintza eta altzarigintza, informatika, eta jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak. Beste zenbait adarretan, ostera, % 75 baino gehiago neskak dira. Esate baterako, merkataritza eta marketina, administrazioa, ehungintza, jantzigintza eta larrugintza, osasuna, gizarte- eta kultura-zerbitzuak, eta irudi pertsonala.

Lanbide-heziketako goi-mailako ikasketetan, sexuen arteko diferentziak desberdinak dira eta sexu baten presentzia askoz ere handiagoa duten adarrak ez dira hain ugariak. Esate baterako, erdi-mailan nagusiki gizonezkoenak diren zenbait adarretan neska gehiago sartzen dira goi-mailan, eta hala, sexuen arteko diferentzia txikiagoa da, gizonezkoak gehiengo izan arren. Hori gertatzen da informatikan, eraikuntzan eta obra zibiletan, jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan. Joera horrek ez du intentsitate bera emakumeek gehiengo duten adarretan, eta marketinaren eta merkataritzaren kasuan baino ez da hautematen. Azkenik, elikagaien industriaren kasuan, joera alderantzizkoa da mailen artean: erdi-mailan % 64,5 gizonak dira, eta goi-mailan, gehienak (% 80) emakumeak.

3.2. Unibertsitate-ikasketak

2004/2005 ikasturtean, 12.309 ikasle berri matrikulatu ziren unibertsitatean, horien % 55,4 emakumeak. Kasu gehienetan, unibertsitaterako sarbide-probak gaindituta sartu ziren. Sartzeko kategoria guztietan, emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa zen, lanbide-heziketa egin dutenen kasuan izan ezik. Dena den, azpimarragarria da 25 urtetik gorakoetan ia % 60 emakumeak zirela.

Titulazioei buruzko datuetan, desberdintasun handiak daude karreretako ikasleen artean, sexuaren arabera. Azken urteetako joerei jarraiki, karrera batzuetan ikasle gehienak emakumeak dira, eta beste batzuetan, gizonak. Lanbide-heziketako adarretarako ezartzen den moduan, gehiengo duela —edo kontzentrazio handia duela— esaten zaio ikasleen % 75 baino gehiago sexu berekoa denean. Unibertsitatean sartu berri diren pertsonen aukeratutako titulazioek etorkizuneko lizentziaturen osaeraren joera adierazten dute. Sartu berriak diren emakumezko ikasle gehien dituzten lizentziaturak eta diplomaturak hauek dira: Medikuntza, Artearen historia, Odontologia, Publizitatea eta harreman publikoak, Psikologia, Itzulpengintza eta interpretazioa, Farmazia, Pedagogia, Irakasle eskola, Turismo-ikasketak, Gizarte-hezkuntza, Dietetika eta nutrizioa, eta Gizarte-lana. Ostera, sartu berriak diren gizonetako ikasle gehien dituzten ikasketak hauek dira: Marina zibila eta zenbait ingeniari (Industri ingeniari teknikoa, Informatikako ingeniari, Meatzeetako ingeniari teknikoa, Sistemen informatikako ingeniari teknikoa).

Gizonen edo emakumeen presentzia nagusi den titulazioen zerrenda luzea den arren, datuak itxaropentsuak dira, lizentziaturen gaur egungo osaerarekin alderatuz gero. Emakumezko ikasleen kontzentrazio handia duten karreretan Filologia ere sartu behar da. Izan ere, Psikopedagogia, Elikagaien zientzia eta teknologia, eta Gizarte- eta kultura-antropologia

bigarren zikloko ikasketak dira, eta beraz, ezin dira karrerekin alderatu. Gizonezko ikasleen presentzia handiagoa duten karrerei dagokienez, aurreko paragrafoan aipatutakoez gain, Telekomunikazioko ingeniari-tza tekniko, Herri-lanetako ingeniari-tza tekniko, Industri diseinuko eta Topografiako sartu behar dira. Gainera, batik bat gizonenak diren beste zenbait karrera ezin dira aurrekoekin alderatu, bigarren ziklokoak direlako. Esate baterako, Ontzi-makinak eta Automatikako eta Industri elektronikako ingeniari-tzak.

Gizonen eta emakumeen presentziaren alderaketari esker, 1991/1992 ikasturteaz geroztik bi sexuetako ikasleen arteko diferentziak txikitu egin direla esan daiteke. Hala ere, oraindik ere emakumezko ikasle gutxi dago ingeniari-tzetan, eta bilakaerako datuek adierazten dutenez, telekomunikaziokoan, informatikakoan eta industri ingeniari-tza teknikoan gero eta emakume gutxiago matrikulatzen dira. Salbuespena Industri ingeniari-tza da: emakumeen kopurua % 5 handitu da.

Graduondoko ikastaroak unibertsitate-ikasketen beste adierazle bat dira. Horri dagokionez, 2004/2005 ikasturtean graduondoko programetan matrikulatutako 2.698 pertsonetatik % 51,7 emakumeak ziren. Gizonezko eta emakumezko ikasleen arteko aldea minimoa izan arren, arloen araberako banaketan alde nabarmenak hauteman daitezke. Esate baterako, osasunaren arloan, graduondoko ikasleen % 70,1 emakumeak dira, eta oster, karrera teknikoen arloan matrikulatutako ikasleen % 66,9 gizonak.

3.3. Helduen hezkuntza eta araubide bereziko hezkuntza

Helduen Hezkuntza (HHE) azken urteetan pixkanaka eta etengabe hazten ari den sektorea da. 2004/2005 ikasturtean, 24.239 ikasle berri matrikulatu ziren EAEn, horien % 59,4 emakumeak. Gainera, bilakaera hori emakumeen eta gizonen arteko orekarantz doa, 1999/2000 ikasturtean emakumezko ikasleak % 65,6 ziren eta harrezkero asko

txikitu da kopuru hori. Helduen ikasketetako emakumeen eta gizonen proportzioen arteko aldeak berariazko ezaugarriak ditu lurralde historiko bakoitzean. Araban eta Bizkaian, Erkidegoko batez bestearekiko aldeak txikiagoak dira. Nabarmendu beharra dago Araban ikasleen % 45 gizonak direla. Gipuzkoan, berriz, emakume gehiago daude ikasleen artean: % 63,4.

Araubide bereziko ikasketei dagokienez, 2004/2005 ikasturtean, 33.213 pertsona matrikulatu ziren, horien % 67,5 emakumeak. Ikasketa horren modalitate guztietan, neskak gehiengoa dira, kirol-ikasketetan izan ezik; izan ere, horietan ikasleen % 98,7 gizonak dira. Oro har, araubide bereziko ikasketetan sexuen arteko desoreka handia egoten da. Desoreka txikiena musikarekin lotutako ikasketetan izaten da, eta alde hori % 22koa da.

3.4. Irakasleria

Hezkuntzan klasikoki egiaztatu izan da irakasle gehienak emakumeak direla. 2004/2005 ikasturtean, hezkuntza orokorreko 35.924 irakasleen % 65,3 emakumeak dira. Dena den, emakumeen proportzioa txikitu egiten da irakasleen artean, irakaskuntza-mailan gora egin ahala. Hori da azken urteetako joera. Esate baterako, haur-hezkuntzan emakume irakasleak % 91,2 dira, eta unibertsitate-ikasketetan, berriz, % 35,2 dira, gizonak baino gutxiago.

EUSTATEk egindako hezkuntzari buruzko estatistikan unibertsitateko irakasleak ageri dira, pertsonal-motaren arabera. Hala, 5.133 irakasleetatik, gehienak titularren eta elkartuen taldeetakoak dira. Hala ere, hain orokorrak ez diren kontratuzko beste irudi batzuetan emakumezko eta gizonezko irakasleen proportzioa orekatuagoa da; hain zuzen ere, irakasle lektoreen (% 50 sexu berekoak) eta irakasle laguntzaileen taldeetan (% 53,6 emakumeak). Azken kategoria horretan bakarrik da handiagoa emakumeen presentzia. Aitzitik, irakasle

katedradunen eta emerituen % 80 gizonak dira. Gizonezko eta emakumezko irakasleen taldekako banaketa bereizita aztertuz gero, zenbait joera hautematen dira. Hala, emakumezko irakasle gehienak unibertsitateko irakasle titularren taldean (% 28,5) eta unibertsitate-eskolakoetan (% 23) daude. Gizonen bi talde ugariak, berriz, unibertsitateko irakasle titularrak (% 27,6) eta irakasle elkartuak (% 22,1) dira.

3. HEZKUNTZA

3.1. Bigarren Hezkuntzako tasak eta ikasketak

3.1. taula. Ikasleak, mailaren eta sexuaren arabera. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	% H	Abs.	% H	
Guztira	450.119	225.581	50,1	224.538	49,8	
Haur-hezkuntza	76.255	36.730	48,2	39.525	51,8	
H. berezia (haurrak)	65	25	38,5	40	61,5	
Lehen hezkuntza	98.502	47.426	48,1	51.076	51,9	
H. berezia (lehen hezkuntza)	317	121	38,2	196	61,8	
DBH	70.191	33.968	48,4	36.223	51,6	
H. berezia (DBH)	186	69	37,1	117	62,9	
Batxilergoa	31.667	16.964	53,6	14.703	46,4	
Erdi-mailako LH	11.050	4.221	38,2	6.829	61,8	
Goi-mailako LH	17.098	7.369	43,1	9.729	56,9	
Unibertsitate-ikasketak	72.394	39.344	54,3	33.050	45,7	
2 zikloko UI	37.987	21.796	57,4	16.191	42,6	
2. zikloko UI	3.840	1.991	51,8	1.849	48,2	
1. zikloko UI	27.869	14.163	50,8	13.706	49,2	
3. zikloko UI	2.698	1.394	51,7	1.304	48,3	

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.2. taula. Eskolatze-tasa garbiak, mailaren eta sexuaren arabera. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	G-E
Guztira	19,1	18,6	19,6	1
Haur-hezkuntza eta lehen hezkuntza	8,3	7,8	8,8	1
Bigarren hezkuntza, guztira	5,4	5,1	5,6	0,5
DBH	3,3	3,2	3,5	0,3
Batxilergoa	1,5	1,6	1,4	-0,2
LH	0,5	0,4	0,7	0,3
Goi-mailako ikasketa, guztira	4,2	4,3	4,2	-0,1
Unibertsitateaz kanpoko goi-mailako ikasketak	0,8	0,7	0,9	0,2
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak	3,4	3,7	3,2	-0,5
HHE	1,2	1,3	1	-0,3

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.3. taula. Egokitasun-tasak, adin adierazgarriaren eta sexuaren arabera. 2004/2005 ikasturtea

	Guztira	Emakumea	Gizonak	
7 urte	100,4	100,7	100,1	-0,6
9 urte	96,5	96,8	96,2	-0,6
11 urte	92,7	93,3	92,2	-1,1
12 urte	88,6	90,2	87	-3,2
13 urte	82,1	86,4	78,1	-8,3
14 urte	77,6	82,7	72,7	-10
15 urte	69,1	75,6	62,8	-12,8
16 urte	63,5	70,2	56,9	-13,3
17 urte	56,1	64	48,7	-15,3

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.4. taula. Ikasketak amaitzen dituztenen tasak, mailaren eta sexuaren arabera.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	G-E
Lehen Hezkuntza	79,9	84,2	75,8	-8,4
DBH (14 urte)	67,3	74,8	60,2	-14,6
DBH (16 urte)	63,9	71,1	57	-14,1
LOGSE Batxilergoko 2. maila (18 urte)	63,6	73,1	54,8	-18,3
LH-Ieko 2. maila (18 urte)	18,9	16,3	21,3	5
LH-IIko 2. maila (20 urte)	31,5	29,3	33,6	4,3
Unib. ikasketen 2. zikloa (23 urte)	22,4	28	17	-11
Unib. ikasketen 1. zikloa (21 urte)	19,7	24,6	15	-9,6

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.5. taula. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasle errepikatzaileen ehunekoak, sexuaren arabera. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Lehen Hezkuntzako 6. maila	4,3	3,5	4,9
DBH	11,1	8,8	13,2
DBH 1	9,2	6,6	11,5
DBH 2	14,2	10,5	17,6
DBH 3	11,5	10	12,9
DBH 4	9,4	8	10,9

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.6. taula. DBHko ikasle desegokien ehunekoak, mailaren eta sexuaren arabera. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
DBH	9	7,9	10
DBH 1	20,8	16,3	24,7
DBH 2	23,2	18	28
DBH 3	29,7	24,7	34,5
DBH 4	29,6	25,1	34,2

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.7. taula. Batxilergoko (LOGSE) ikasle desegokien ehunekoak, mailaren eta sexuaren arabera. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
LOGSE Batxilergoa	25,8	24,2	27,6
LOGSE Batxilergoko 1. maila	27,9	25,8	30,3
LOGSE Batxilergoko 2. maila	38,8	36,3	41,8

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.8. taula. Batxilergoan eta erdi- eta goi-mailako Heziketa Zikloetan (LOGSE) maila errepikatu duten ikasleen ehunekoa, adarraren eta sexuaren arabera. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
LOGSE Batxilergoa	8,5	7,6	9,4
LOGSE Batxilergoko 1. maila	5,3	4,6	6,2
LOGSE Batxilergoko 2. maila	11,4	10,4	12,5
Erdi-mailako LOGSE LH	10,9	8,1	12,6
Goi-mailako LOGSE LH	7,5	5,3	9,1

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.9. taula. Erdi-mailako Heziketa Zikloetan (LOGSE) matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira		Emakumea		Gizonak	
	Abs.	Abs.	% H	Abs	% H	
Guztira	11050	4221	38,2	6829	61,8	
Itsas eta arrantza-jarduerak	58	1	1,7	57	98,3	
Elektrizitatea eta elektronika	1325	26	2	1299	98	
Ibilgailu autopropultsatuen mantentze-lanak	943	26	2,8	917	97,2	
Fabrikazio mekanikoa	2104	78	3,7	2026	96,3	
Produkzioko mantentze eta zerbitzuak	758	28	3,7	730	96,3	
Eraikuntza eta obra zibilak	145	8	5,5	137	94,5	
Zurgintza eta altzarigintza	229	13	5,7	216	94,3	
Informatika	341	82	24	259	76	
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	118	29	24,6	89	75,4	
Elikagaien industriak	31	11	35,5	20	64,5	
Ostalaritza- eta turismo-ikasketak	640	289	45,2	351	54,8	
Arte grafikoak	231	112	48,5	119	51,5	
Komunikazioa, irudia eta soinua	78	44	56,4	34	43,6	
Kimika	110	73	66,4	37	33,6	
Merkataritza eta marketina	447	351	78,5	96	21,5	
Administrazioa	1073	876	81,6	197	18,4	
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	25	23	92,0	2	8	
Osasuna	1264	1178	93,2	86	6,8	
Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	124	117	94,4	7	5,6	
Irudi pertsonala	830	817	98,4	13	1,6	

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.10. taula. Goi-mailako Heziketa Zikloetan (LOGSE) matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira			Emakumea		Gizona	
	Abs.	Abs.	% H	Abs.	% H	Abs.	% H
GUZTIRA	17098	7369	43,1	9729	56,9		
Ibilgailu autopropultsatuen mantentze-lanak	393	10	2,5	383	97,5		
Itsas eta arrantza-jarduerak	98	8	8,2	90	91,8		
Elektrizitatea eta elektronika	2201	222	10,1	1979	89,9		
Fabrikazio mekanikoa	2145	256	11,9	1889	88,1		
Produkzioko mantentze eta zerbitzuak	966	127	13,1	839	86,9		
Zurgintza eta altzarigintza	62	13	21	49	79		
Informatika	2274	615	27	1659	73		
Nekazaritza-jarduerak	149	43	28,9	106	71,1		
Eraikuntza eta obra zibilak	640	194	30,3	446	69,7		
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	401	143	35,7	258	64,3		
Komunikazioa, irudia eta soinua	321	139	43,3	182	56,7		
Arte grafikoak	336	187	55,7	149	44,3		
Kimika	745	432	58	313	42		
Merkataritza eta marketina	892	520	58,3	372	41,7		
Ostalaritza- eta turismo-ikasketak	695	472	67,9	223	32,1		
Administrazioa	2075	1579	76,1	496	23,9		
Elikagaien industriak	15	12	80	3	20		
Osasuna	1152	959	83,2	193	16,8		
Gizarte- eta kultura-zerbitzuak	1287	1190	92,5	97	7,5		
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	47	44	93,6	3	6,4		
Irudi pertsonala	204	204	100	0	0		

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.2. Unibertsitate-ikasketak

3.11. taula. Sartu berriak diren ikasleak, sartzeko moduaren eta sexuaren arabera. 2004/2005

	Guztira			Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	% H	Abs.	% H	Abs.	% H
Guztira	12.309	6.819	55,4	5.490	44,6		
Unibertsitaterako sarbide-probak	9.830	5.583	56,8	4.247	43,2		
UBI edo LOGSE Batxilergoa soilik	214	122	57,0	92	43,0		
Lanbide Heziketa	803	391	48,7	412	51,3		
25 urtetik gorakoak	243	143	58,8	100	41,2		
Beste kasu batzuk	1.219	580	47,6	639	52,4		

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.12. taula. Sartu berriak diren ikasleen % 75 edo gehiago emakumeak diren karrerak. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira			Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	% H	Abs.	% H	Abs.	% H
Lizentziatura, arkitektura eta ingeniariitza							
Medikuntza	184	138	75,0	46	25,0		
Artearen historia	66	50	75,8	16	24,2		
Odontologia	48	37	77,1	11	22,9		
Publizitatea eta harreman publikoak	113	88	77,9	25	22,1		
Psikologia	473	376	79,5	97	20,5		
Itzulpengintza eta interpretazioa	58	48	82,8	10	17,2		
Farmazia	147	125	85,0	22	15,0		
Pedagogia	39	35	89,7	4	10,3		
Diplomatura							
Turismo-ikasketak	159	127	79,9	32	20,1		
Gizarte-lana	198	162	81,8	36	18,2		
Erizaintza	377	325	86,2	52	13,8		
Gizarte-hezkuntza	369	320	86,7	49	13,3		
Dietetika eta nutrizioa	77	68	88,3	9	11,7		

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.13. taula. Sartu berriak diren ikasleen % 75 edo gehiago emakumeak diren karrerak. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	% H	Abs.	% H	
Lizentziatura, arkitektura eta ingeniari-tza						
Ikasketa eklesiastikoak	5	-	0,0	5	100,0	
Informatika-ingeniaritza	138	34	24,6	104	75,4	
Arkitektura eta ingeniari-tza teknikoa						
Marina zibila	69	9	13,0	60	87,0	
Sistemen informatikako ingeniari-tza teknikoa	194	33	17,0	161	83,0	
Industri ingeniari-tza teknikoa	1.346	296	22,0	1.050	78,0	
Meatzetako ingeniari-tza teknikoa	95	22	23,2	73	76,8	

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.14. taula. % 75 baino gehiago emakumeak diren karrerak. 2004/2005 ikasturtea.

Lizentziatura	Guztira		Emakumeak	
	Abs.	Abs.	%	
Giza zientziak	213	161	75,6	
Filologia	226	176	77,9	
Artearen historia	50	39	78,0	
Publizitatea eta harreman publikoak	99	80	80,8	
Medikuntza	206	169	82,0	
Odontologia	56	46	82,1	
Gizarte- eta kultura-antropologia (2)	63	52	82,5	
Pedagogia	156	132	84,6	
Psikologia	382	324	84,8	
Elikagaien zientzia eta teknologia (2)	53	45	84,9	
Itzulpen-gintza eta interpretazioa	44	38	86,4	
Farmazia	120	108	90,0	
Psikopedagogia (2)	256	233	91,0	
Diplomaturak		Guztira	Emakumeak	
Erljio-zientziak	5	4	80,0	
Irakasle eskola	1.084	911	84,0	
Turismo-ikasketak	290	245	84,5	
Gizarte-hezkuntza	276	248	89,9	
Erizaintza	291	266	91,4	
Dietetika eta nutrizioa	56	52	92,9	
Gizarte-lana	185	174	94,1	

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika. Oharra: (2) bigarren zikloa

3.15. taula. % 75 baino gehiago gizonak diren karrerak. 2004/2005 ikasturtea.

Lizentziatura	Guztira Gizonak		
	Abs.	Abs.	%
Ikasketa eklesiastikoak	7	7	100,0
Teologia (2)	5	5	100,0
Itsas makinak (2)	1	1	100,0
Automatikako eta industri elektronikako ingeniari-tza (2)	110	89	80,9
Industri ingeniari-tza	511	397	77,7
Geografia	12	9	75,0
Arkitektura eta ingeniari-tza teknikoak			
Telekomunikazioko ingeniari-tza teknikoa	20	17	85,0
Herri-lanetako ingeniari-tza teknikoa	11	9	81,8
Meatzetako ingeniari-tza teknikoa	67	53	79,1
Industri ingeniari-tza teknikoa	963	730	75,8
Marina zibila	34	25	73,5
Sistemen informatikako ingeniari-tza teknikoa	48	34	70,8
Topografiako ingeniari-tza teknikoa	27	19	70,4
Kudeaketa-informatikako ingeniari-tza teknikoa	381	265	69,6
Industri diseinuko ingeniari-tza teknikoa	52	32	61,5

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika

3.16. taula. Zenbait unibertsitate-karreretako emakumeen ehunekoaren bilakaera. 1991/1992-2004/2005 aldia.

	1991/92	1995/96	2000/01	2004/05	Dif.
Pedagogiako liz.	81,6	81,5	85,3	89,7	4,4
Dietetika eta nutrizioa	78,1	81,9	89,6	88,3	-1,3
Gizarte-hezkuntzako diplo.	*	82,2	82,8	86,7	3,9
Erizaintzako diplo.	88,7	87,3	87,6	86,2	-1,4
Farmaziako liz.	77	82	82,1	85,0	2,9
Gizarte-laneko diplo.	91,8	89,5	88,7	81,8	-6,9
Turismo-ikasketak	83,5	84	81,5	79,9	-1,6
Psikologiako liz.	73,8	75,7	79,6	79,5	-0,1
Publizitate eta harreman publikoetako liz.	*	*	77,3	77,9	0,6
Odontologiako liz.	*	69,6	80,1	77,1	-3,0
Psikopedagogiako liz.	*	88,3	83,3	75,7	-7,6
Medikuntzako liz.	61,1	67	77,1	75,0	-2,1
Antropologiako liz.	*	80,5	69,4	74,6	5,2
Irakasle eskola(k)	72,3	69,7	79,4	74,6	-4,8
Ikus-entzunezko komunikazioa liz.	*	*	69,8	72,2	2,4
Arte ederretako liz.	63,5	67,7	70,1	71,7	1,6
Filologi(et)ako liz.	74	73,4	73,3	70,1	-3,2
Elikagaien zien. eta tek. liz.	81,8	78,5	79,7	66,7	-13,0
Giza zientzietako liz.	*	*	62,8	66,4	3,6
Biologiako liz.	60,9	66,9	67,3	65,7	-1,6
Biokimikako liz.	*	62,4	63,9	65,4	1,5
Kimikako liz.	51,7	57,9	63,5	65,2	1,7
Kazetaritzako liz.	*	*	63,2	63,9	0,7
Gizarte-graduatu eta lan-harremanak	64,7	66,1	64,6	63,4	-1,2
Zuzenbideko liz.	54,8	57	59	57,3	-1,7
Matematikako liz.	53,1	58,6	46,7	57,1	10,4
Enpresen admin. eta zuzen. liz.	53,8	55,3	57,8	56,9	-0,9
Arkitektura	37	50	51,8	54,9	3,1
Geografia, historia eta artearen histor. liz.	58,1	51,8	56,2	53,7	-2,2
Enpresa-ikasketak	53,8	55,3	53,8	53,5	-0,3
Soziologia eta politika-zientzietako liz.	57,1	55,8	41	51,7	10,9
Fisikako liz.	30,2	34,5	46,8	51,2	4,4
Ekonomiako liz.	49,7	51,4	48,5	48,3	-0,2
Zientzia aktuario eta finantziarioet. diplo.	*	*	48,8	48,1	-0,7
Geologiako liz.	35,3	46,1	55,2	46,4	-8,8
Filosofiako liz.	40,8	40,1	38	45,9	7,9
Topografiako ing. tek.	*	36,9	38,3	35,9	-2,4
Erljio-zientziak	*	53,6	56,7	33,3	-23,4
Gorputz-hezkuntzako liz.	25,5	27,7	53	32,5	-20,5
Telekomunikazioetako ing.	*	33,8	33,7	29,7	-4,0
Industri ing.	17,2	22,9	23,6	29,0	5,4
Informatikako ing.	*	20,5	26,9	24,6	-2,3
Meatzeen ustiapeneko ing. tek.	0	20,4	24,5	23,2	-1,3
Industriako ing. tek.	13,2	16,8	22	22,0	0,0
Marina zibila	7	12,8	22,3	13,0	-9,3
Informazio-zientzietako liz.	57,7	58,5	61,3		
Informatikako liz.	38,5	33,9	26,9		

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika. Oharra: Soziologia eta politika-zientzien eta Geografia, historia eta artearen historiaren kasuan, ikasleen batura egin da.

3.19. taula. Graduondoko ikastaroetan matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera. 2004/2005.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak		
	Abs.	Abs.	% H	% B	Abs.	% H	% B
Guztira	2.698	1.394	51,7		1.304	48,3	
Esperimentalak	316	185	58,5	13,3	131	41,5	10,0
Giza zientziak	591	339	57,4	24,3	252	42,6	19,3
Osasuna	334	234	70,1	16,8	100	29,9	7,7
Sozialak eta juridikoak	840	432	51,4	31,0	408	48,6	31,3
Teknikoak	617	204	33,1	14,6	413	66,9	31,7

EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.3. Helduen hezkuntza eta araubide bereziko hezkuntza

3.20. taula. HHEko ikasleen bilakaera EAEn, sexuaren eta adinaren arabera. 1999/2000-2004/2005 ikasturteak.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%	
1999/2000	11.322	7.432	65,6	3.890	34,4	
2000/2001	13.508	8.483	62,8	5.025	37,2	
2003/2004	21833	13159	60,3	8674	39,7	
2004/2005	24.239	14.402	59,4	9.837	40,6	

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika

3.21. taula. HHEko ikasleak EAEn, sexuaren eta adinaren arabera. Curso2004/2005.

	Guztira			Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
EAE	24.239	14.402	59,4	9.837	40,6		
Araba	4.180	2.298	55,0	1.882	45,0		
Bizkaia	13.930	8.209	58,9	5.721	41,1		
Gipuzkoa	6.129	3.895	63,6	2.234	36,4		

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.22. taula. Araubide berezian matrikulatutako ikasleak, sexuaren eta ikasketen arabera.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Guztira	33.213	67,5	22.432	67,5	10.781	32,5
Arteak eta lanbideak	759	71,7	544	71,7	215	28,3
Hizkuntzak (1)	29.279	68,4	20.022	68,4	9.257	31,6
Musika (2)	2.955	61,2	1.807	61,2	1.148	38,8
Dantza	62	91,9	57	91,9	5	8,1
Kirol-ekintzak	158	1,3	2	1,3	156	98,7

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.4. Irakasleria

3.23. taula. Irakasleak, sexuaren eta mailaren arabera. 2004/2005 ikasturtea.

	Guztira			Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	% H	Abs.	% H	Abs.	% H	
Ikasketa orokorrak	35.924	65,3	23.449	65,3	12.475	34,7	
Unibertsitate-aurreko mailak	30.791	70,3	21.644	70,3	9.147	29,7	
Haur eta Lehen Hezkuntza	14.419	84,4	12.173	84,4	2.246	15,6	
Haur Hezkuntza	6.547	91,2	5.974	91,2	573	8,8	
Lehen Hezkuntza	9.940	79,9	7.941	79,9	1.999	20,1	
Hezkuntza berezia (1)	402	75,6	304	75,6	98	24,4	
Bigarren Hezkuntza	14.986	57,3	8.581	57,3	6.405	42,7	
DBH	10.177	64,0	6.511	64,0	3.666	36,0	
Batxilergoa	5.360	57,8	3.099	57,8	2.261	42,2	
Lanbide Heziketa	3.637	39,5	1.437	39,5	2.200	60,5	
Helduen hezkuntza	721	68,5	494	68,5	227	31,5	
Unibertsitate-ikasketak	5.133	35,2	1.805	35,2	3.328	64,8	
Araubide bereziko hezkuntza	1.058	55,1	583	55,1	475	44,9	

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika. Oharra: (1) Eskolak berariazko geletan ematen dituzten hezkuntza bereziko irakasleak

3.24. taula. Unibertsitateko irakasleak guztira, sexuaren eta motaren arabera. 2004-2005 ikasturtea.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak		
	Abs.	Abs.	% H	% B	Abs.	% H	% B
Irakasleak	5.133	1.805	35,2	100,0	3.328	64,8	100,0
Unibertsitateko katedradunak	543	99	18,2	5,5	444	81,8	13,3
Unibertsitateko titularrak	1.434	515	35,9	28,5	919	64,1	27,6
UE katedradunak	179	61	34,1	3,4	118	65,9	3,5
UE titularrak	905	416	46,0	23,0	489	54,0	14,7
Maisu-maistrak	5	-	0,0	0,0	5	100,0	0,2
Irakasle elkartuak	1.065	330	31,0	18,3	735	69,0	22,1
Bisitariak	53	22	41,5	1,2	31	58,5	0,9
Unibertsitateko laguntzaileak	28	15	53,6	0,8	13	46,4	0,4
Emerituak	24	3	12,5	0,2	21	87,5	0,6
Laguntzaileak	199	88	44,2	4,9	111	55,8	3,3
Lektoreak	10	5	50,0	0,3	5	50,0	0,2
Ikertzaileak	20	7	35,0	0,4	13	65,0	0,4
Beste batzuk	668	244	36,5	13,5	424	63,5	12,7

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

3.25. taula. Irakasleak, mailaren, sexuaren eta lanaldi-motaren arabera. 2004-2005 ikasturtea.

		Guztira		Emakumeak		Gizonak		
		Abs.	Abs.	% H	% B	Abs.	% H	% B
Guztira	Guztira	30791	21644	70,3		9147	29,7	
	LO	21957	15610	71,1	72,1	6347	28,9	69,4
	LP	8834	6034	68,3	27,9	2800	31,7	30,6
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	Guztira	14419	12173	84,4		2246	15,6	
	LO	10503	8994	85,6	73,9	1509	14,4	67,2
	LP	3916	3179	81,2	26,1	737	18,8	32,8
Haur Hezkuntza	Guztira	6547	5974	91,2		573	8,8	
	LO	3617	3429	94,8	57,4	188	5,2	32,8
	LP	2930	2545	86,9	42,6	385	13,1	67,2
Lehen Hezkuntza	Guztira	9940	7941	79,9		1999	20,1	
	LO	5399	4315	79,9	54,3	1084	20,1	54,2
	LP	4541	3626	79,9	45,7	915	20,1	45,8
Irakaskuntza ertainak	Guztira	14986	8581	57,3		6405	42,7	
	LO	9211	5147	55,9	60,0	4064	44,1	63,5
	LP	5775	3434	59,5	40,0	2341	40,5	36,5
DBH	Guztira	10177	6511	64,0		3666	36,0	
	LO	3699	2429	65,7	37,3	1270	34,3	34,6
	LP	6478	4082	63,0	62,7	2396	37,0	65,4
LOGSE Batxilergoa	Guztira	5360	3099	57,8		2261	42,2	
	LO	920	485	52,7	15,7	435	47,3	19,2
	LP	4440	2614	58,9	84,3	1826	41,1	80,8
Lanbide Heziketa	Guztira	3637	1437	39,5		2200	60,5	
	LO	2086	696	33,4	48,4	1390	66,6	63,2
	LP	1551	741	47,8	51,6	810	52,2	36,8
Hezkuntza berezia	Guztira	402	304	75,6		98	24,4	
	LO	225	172	76,4	56,6	53	23,6	54,1
	LP	177	132	74,6	43,4	45	25,4	45,9
Helduen hezkuntza	Guztira	721	494	68,5		227	31,5	
	LO	590	392	66,4	79,4	198	33,6	87,2
	LP	131	102	77,9	20,6	29	22,1	12,8

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko estatistika.

4. OSASUNA ETA SEXUALITATEA

Osasuna alderdi garrantzitsua da pertsonen bizitzan, eta askotan aldeak egoten dira alor horretan sexu batetik bestera. Alor horretako ikerketetan ikusi da alderdi hauek eragina dutela desberdintasun horretan: emakumeek eta gizonek gizarteari ekarpen bera egin ez izanak eta sexu batetik bestera baliabideak eskuratzeko dagoen aldeak. Emakume eta gizonen egoerari buruzko ikerketak gero eta garrantzi handiagoa hartu du azken urteotan, alde batetik osasunaren definizio androzentriko tradizionalari, haren sintomei eta haren tratamenduei erantzuteko, eta, beste aldetik, pertsona guztien bizi-kalitatearekin duen garrantzi nabariagatik.

Azken urteotan kritikatu egin dute pertsonen osasunarekin lotutako adierazleen eraikuntzan eta diseinuan, kasu gehienetan ez dela generoaren ikuspegia barneratu. Hain zuzen, gai horri buruz egin diren inkestetan, osasunarekin lotutako arazoen zati txiki bat bakarrik azaltzen dela ikusi da, eta, kasu askotan, ez direla behar bezala agertzen emakumeei berariaz eragiten dieten osasun-arazoak. Inkestetan, erantzun-aukera osatugabeak, sailkapen okerrak eta/edo galdera neutral eta zalantzazkoak daudela salatu da.

Azterketa askok mugak izaten dituzte, baina, hala ere, emakumeek eta gizonek osasun-alorrean zer joera duten erakusten duten adierazleak jasotzea tresna indartsua da alor horretan esku hartzeko. Atal honetan osasuna aztertzen da norberaren osasunaren gaineko pertzepzio, osasun-baliabideen erabilera, sendagaien kontsumo eta arrisku-portaera arruntenei buruzko estatistiketatik abiatuta. Horrez gain, sexualitateari eta beste alderdi batzuei buruzko adierazleak sartu dira.

4.1. Datu orokorrak

EAEko biztanleek norberaren osasunaren gaineko pertzepzio positiboa daukate, oro har. Ez dago alde garrantzitsurik emakume eta gizonen osasunaren gaineko pertzepzioan, eta azken urteotako joera orokorra pertzepzio hori gero eta positiboagoa izatea da. Izan ere, EAEko biztanleen erdiek baino gehiagok beren osasuna ona edo oso ona zela esaten zuten 2002an. Hala ere, pertzepzio hori okertu egiten da adinean aurrera egin ahala.

45 urtetik aurrera, oso osasun ona dutela adierazten duten pertsonen ehunekoak nabarmen jaisten da gizonen zein emakumeen artean. Adinak aurrera egin ahala, bi sexuen osasunaren gaineko pertzepzio negatibo hori areagotzen da. 65 urtetik gorako emakumeek adin bereko gizonek baino auto-pertzepzio negatiboagoa dute.

Ariketa eta jarduera fisikoa funtsezkoak dira bizitza osasuntsua izateko. Eusko Jaurlaritzaren *Osasun Inkestak* emandako datuen arabera, pertsonen % 64,6k beren burua sedentariotzat jotzen dute, gorputz-jarduerari dagokionez. Egoneko bizitzaren ehunekoak igotzen joan dira azken urteotan eta pixka bat handiagoak dira emakumeen kasuan (% 68,7 2002an). Zenbat eta nagusiagoak izan pertsonak, gero eta handiagoak dira sexuen arteko aldeak: egoneko bizitza dutela adierazten duten 65 urteko emakumeek gauza bera adierazten duten adin bereko gizonek baino 12 portzentaje-puntu gehiago dituzte. Gorputz-jarduera handieneko kategoriak gizonez beteta daude neurri handian, eta 45 eta 64 urte bitarteko adin-talderako baino ezin da esan antzeko indizeak daudela sexuen artean.

4.2. Osasun-baliabideen erabilera

Emakumeek gehiago erabili ohi dituzte osasun-zerbitzuak. Hori argi eta garbi egiaztatzen da Eusko Jaurlaritzaren Soziologia Prospekzioetarako Kabineteak 2004ko maiatzean egindako *EAEko Osasun Zerbitzuen Erabilera eta Balorazio Inkestan*. Txosten horren arabera, emakumeen Osakidetzako osasun-zerbitzuen erabilera-maila 78 portzentaje-puntukoa zen; gizonena, aldiz, 72 puntukoa. Emakumeek maizago erabiltzen dituzte osasun-zentroko edo anbulatorioko kontsultak, baina ez dituzte gizonek beste erabiltzen ospitaleak, eta denbora gutxiago pasatzen dute toki horietan.

Joera horri jarraiki eta Eustaten datuen arabera, urtean maizago joaten dira emakumeak medikuarengana. Nahiz eta gizon eta emakumeen bisiten batez besteko maiztasuna antzekoa den, ia gizonen laurden batek (% 23,7k) eta emakumeen % 17,7k adierazten dute ez doazela inoiz medikuarengana. 25 eta 64 urte arteko gizon-emakumeen artean daude alde handienak. Gazteagoen eta helduagoen kasuan, berriz, maiztasun-adierazleak nahiko antzekoak dira.

Joera horrekin jarraituz, Osasun Ministerioak 2003an egindako Osasun Inkestako datuen arabera, EAEko gizonen erdiak baino gehiago ez dira mediku-kontsultara joan azken 4 hilabeteetan. Emakumeen ia % 30, berriz, izan dira kontsultan azken bi asteotan. Are gehiago, azken hamabost egunetan mediku-kontsultara joan direla esan duten gizon-emakumeen kasuan, gehienak behin bakarrik izan dira, eta hainbat arrazoiengatik joan dira. Kontsultaren arrazoi nagusiak diagnostikoa, tratamendua eta/edo mediku-azterketa izan dira, eta, neurri txikiagoan, errezetak egitea. Emakumeen kopuru absolutuak handiagoak dira arrazoi guztietan, baina portzentaje-indizeak oso antzekoak dira bi sexuen kasuan.

Mediku-kontsultari dagokionez, inkestak aztertu du zenbat denbora pasatzen duten emakumeek eta gizonek kontsultetan. Ez dago alde handirik kontsultan batez beste itxaron beharreko denborari dagokionez. Sexu bateko edo besteko pertsonen % 70 inguru 15 minutu baino gutxiago egoten dira zain medikuak hartzeko. Aldeak handiagoak dira etxetik osasun-etxera joaten zenbat denbora pasatzen duten erreparatzen badugu: gizonek ibilbideak egiteko portzentaje altuxeagoak dituzte emakumeek baino. Bestalde, larrialdi-zerbitzuen erabilerari dagokionez, pertsonen % 23k bakarrik erabili dituzte zerbitzu horiek azken 12 hilabeteetan. Gehienek, gainera, behin bakarrik erabili dituzte. Ez dago alde handirik sexu batetik bestera.

Ospitaleetako gaixotze-tasen estatistikek emakume eta gizonei buruzko adierazle nabarmenak agertzen dituzte, diagnostiko arruntenei eta ospitalizazioaren iraupenari buruzko informazio interesgarria biltzen dutenak. Alde horretatik, diagnostikoaren arabera alta hartu duten pertsonen buruzko datuak aztertuta, sexuen arteko joera ezberdinak azpimarratu behar dira. Emakumeen kasuan, ospitalizazioa eragiten duten diagnostiko arruntak haurdunaldia eta erditzea dira. Emakumeek beste diagnostiko batzuei ere aurre egin behar diete, neurri txikiagoan eta gizonen moduko tasetan.

Emakumeak beste gaixotasun batzuentatik ere ospitaleratu eta diagnostikatzen dituzte, adibidez, nerbio-sistemari, zentzumenei, zirkulazio-aparatuari eta digestio-aparatuari lotutako gaixotasunengatik, arazo osteomuskular-rengatik eta lokomozio-aparatuko gaixotasunengatik. Gizonei dagokienez, diagnostiko arruntak zirkulazio-aparatuari, digestio-aparatuari, arnas sistemari edo nerbio-sistemari lotutako gaixotasunak eta hausturak edo lesioak dira.

Prozedura kirurgiko gehienetan, emakume eta gizonen kopuruak antzekoak dira. Hala ere, zenbait ebaketa maizago egiten dira sexu batean ala bestean. Esate baterako, prostatari, eten edo herniari, gernu-maskuri, bihotz-hodi edo sudurrari lotutako ebaketak gizonei egin ohi zaizkie; artikulazioei lotutako prozedurak eta, logikoa denez, umetokiko konplikazioak eta erditzeak, aldiz, emakumeei.

Ospitalizazioaren iraupena oso alde garrantzitsua da azterketarako. Izan ere, gure ingurunean gero eta joera handiagoa dago ospitalizazio-aldia murrizteko. Horren ondorioz, gaixoak ospitaletik kanpo sendatzen dira guztiz, zainketa-lanak gaixoaren familia-eremuari edo hurbileko eremuari eskualdatuta. Horrek eragin garrantzitsuak ditu gaixoaren hurbileko ingurunean, eta emakumeei eragiten die gehienbat, beraiek baitira eginkizun horiek beren gain hartu ohi dituztenak.

EAEko ospitalizazioaren iraupenari buruzko estatistikek ondorio interesgarri batzuk azaldu dituzte. Ia kasu guztietan gizonek emakumeek baino denbora luzeagoa eman dute ospitaletan, diagnostiko bera izanda. Emakumeen ospitalizazioa apur bat luzeagoa da gaixotasun osteomuskularren, osteoartrosiaren, kolelitiariaren, femurraren lepoko hausturen edo erditzearekin lotutako ospitalizazioen kasuan. Oro har, gizonentzat zein emakumeentzat ospitalizazio luzeagoa dakarten gaixotasunak zirkulazio-aparatuko gaixotasunak, tumoreak, digestio-aparatuko gaixotasunak eta hausturak edo lesioak dira. Kasu horietan guztietan, gizonentzako zein emakumeentzako ospitalizazio-tasa 70 egunetik gorakoa da mila biztanleko.

4.3. Osasunaren prebentzioa eta sendagaien kontsumoa

Prebentzioa funtsezko alderdia da pertsonen osasunean. Espezialista batzuen bisitak edo aldian behin egiten diren probak adierazle gisa har ditzakegu gai horretara hurbiltzeko. *Osasun Inkesta Nazionalaren* arabera, emakumeak eta gizonak antzera joaten dira dentistaren

kontsultara, baina apur bat gehiagotan azaltzen dira emakumeak. Hala ere, hortzeria nola duten galdetzean, alde handiak daude sexu batetik bestera, inkestari erantzundako pertsonen artean. Gizon gehiagok dute txantxarra emakumeek baino, baina hortz eta hagin naturalak dituzten gizonen kopurua emakumeen kopuruaren bikoitza da. Bestalde, emakumeen erdiek baino gehiagok (%54,2k) dituzte fundak, zubiak edo beste motaren bateko protesiak edo hortzordeak, eta gizonen %37,5ek.

Prebentzio-adierazleen barruan aukeratu ditugu gripearen kontrako txertoak. 2002ko txertaketa-kanpainan herritarren %20 txertatu zen. Portzentajeak antzekoak izan ziren emakumeen eta gizonen kasuan.

Emakumeen osasun-prebentzioko alderdi garrantzitsu bat ginekologoaren kontsultara joateko maiztasuna da. *Osasun Inkesta Nazionaleko* datuen arabera, EAeko emakumeen % 82,3 noizbait izan da espezialista horren kontsultan. Haurdunaldiarekin edo erditzearekin lotutako kasuez gain, kontsultara joateko arrazoi nagusia aldi behingo azterketa egitea izan da. Gainera, EAeko emakumeen ia erdiek noizbait egin dute mamografia. Adierazlea oso altua da 45 urtetik 64 urtera arteko emakumeen kasuan, gai horren ganean erakundeek egiten dituzten kanpainen ondorioz. Baginako zitologien kasuan, berriz, portzentajeak antzekoak dira 65 urtetik beherako emakume guztien kasuan. 44 urtetik beherako emakumeen %71,4k eta 45 urtetik 64 urtera arteko emakumeen %84,3k egin izan du zitologia. Helduagoen kasuan, berriz, emakumeen %36,5ek bakarrik egin izan du proba.

Osasunarekin lotutako beste alderdi garrantzitsu bat sendagaien kontsumoa da. EAeko herritarren erdiek baino gehiagok sendagaien bat kontsumitu dute azken bi asteetan. Emakumeek gehiago kontsumitzen dituzte gizonek baino, adin-talde guztietan, 64 urtetik gorako pertsonen kasuan izan ezik. Hala ere, joera hori aldatu egiten da errezetarik gabeko sendagaien kasuan. Automedikazioa gizonen alternatiba da funtsean adin-talde guztietan, pertsona helduenen

kasuan izan ezik. Azkenik, medikuntza alternatiboko produktuen kontsumoari dagokionez, emakumeek gizonek baino kontsumo-portzentaje altuagoak dituzte, baina, hala ere, ez da gehienek egiten duten aukera.

4.4. Osasuneko arriskuak

Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa oso hedatuta daude oro har, eta arrisku-portaera horiek ezberdinak dira emakumeen eta gizonen artean. Eusko Jaurlaritzak 2002an egindako *Osasun Inkestak*, azterlan berak 1997an ateratako emaitzen antzeko joerei jarraitzen die.

Tabakoa erretzeari dagokionez, alde handiak daude sexuen artean. Noizbehinka edo normalean erretzen duten pertsonen ehunekoa handiagoa da gizonen kasuan. Aldeak indargabetu edo alderantzikatzen dira, adinak aurrera egin ahala. 44 urtetik beherako pertsonen artean ia ez dago alderik, nahiz eta gizonek maizago erretzen duten. Adin horretatik aurrera, 45 eta 64 urte bitarteko adin-taldean aldeak agerikoagoak dira: emakumeen % 69,3k eta gizonen % 33,7k adierazten dute ez dutela erretzen. Sexuen arteko aldea are hautemangarriagoa da 65 urtetik gorako pertsonen artean: emakumeen % 93,3k eta gizonen % 43,7k adierazten dute ez dutela erretzen. Gainera, *Osasun Inkesta Nazionalaren* arabera, alde interesgarriak daude kontsumo-mailari dagokionez: gizonen erdiek baino gehiagok eta emakumeen laurdenak kontsumitzen dute egunean 20 zigarro baino gehiago.

Alkohola edateari dagokionez, joerak antzekoak dira. Gizonek asko edo gehiegi edaten dute, emakumeek baino gehiago. Emakumeek ehuneko handiagoak dituzte noizbehinka edan edo ez edateari dagokienez. Hala eta guztiz ere, aldeak berriro ere indargabetzen dira adina dela eta. Gazteenek agertzen dituzte ohiko kontsumoaren ehuneko berdintsuenak. Adin-talde nagusiagoetan, sexuen arteko aldeak handiagotzen dira, nahiz eta tabakoaren kasuan bezain alde handiak agertu ez.

4.5. Sexualitatea

Sexualitatea alderdi garrantzitsua da pertsonen bizitzan, eta osasunari lotuta dago zuzenean. Estatistikako Institutu Nazionalaren *Osasun eta Sexu Ohituren Inkestaren* arabera, EAEko pertsona gehienek 18 urtetik aurrera izan zituzten beren lehenengo sexu-harremanak. Alde horretatik, gizonak omen dira goizen hasten direnak, % 36,7k adierazten baitute sexu-harremanak izan zituztela 18 urteen aurretik; emakumeen % 22k gauza bera adierazten dute.

Sexu-harremanak izan dituzten EAEko pertsonen artean, % 56,3k bakarrik adierazten dute beren lehenengo sexu-harremanean preserbatiboa erabili zutela. Ehunekoak antzekoak dira bi sexu-eraketa, nahiz eta emakumeenak (% 57,9) gizonenak (% 54,7) baino pixka bat handiagoak izan. Datuak aldatu egiten dira azken sexu-harremanean preserbatiboa erabili duten ala ez galdetzean: erdiek baino gutxiagok (% 43,9k) adierazi dute erabili egin zutela. Kasu horretan, aldeak alderantzikatzen dira, eta gizonak emakumeek baino baiezko erantzun gehiago ematen dituzte. Aldea nabarmena da: 9 portzentaje-puntu.

Beste adierazle interesgarri bat inkesta egin duten pertsonak beren bizitzan izan dituzten sexu-bikotekideen kopurua da. Inkestari erantzun dioten emakumeen erdiek (% 50,15ek) adierazten dute sexu-bikotekide bakarria izan dutela; gizonen laurden batek (% 24,79k) baino ez dute gauza bera adierazten. Gizonak emakumeek baino sexu-bikotekide gehiago izan dituztela erantzun dute, zalantzarik gabe. Horrez gain, gizonen bosten batek adierazten dute beren bizitzan hamar sexu-bikotekide edo gehiago izan dituztela. Emakumeen laurden batek adierazten dute beren bizitzan hiru sexu-bikotekide baino gehiago izan dituztela, eta gizonen erdiek baino gehiagok adierazten dute gauza bera. Datu horiek lotutako beste azterlan batzuekin bat datozen arren, beharbada sexuen arteko aldea erlatibiza daiteke gizonak eta

emakumeek “sexu-bikotekidea” esanda ulertzen dutenaren arabera, hitz horren ulermenak berak nabarmen baldintzatzen du eta erantzuna.

EINen estatistikak berariaz zuzentzen dira azken urtean sexu-harremanak izan dituzten pertsonengana. Alde horretatik, berriro ere gizonek jarduera handiagoko ehunekoak agertzen dituzte. Gauzak horrela, gizonen % 23,1ek eta emakumeen % 14,1ek sexu-bikotekide bat baino gehiago izan dituzte azken urtean. Are gehiago, biztanleen % 14,4k noizbehinkako bikotekideak izan dituzte denbora horretan, gizonen % 20,9k eta emakumeen % 7,7k, hain zuzen ere.

Sexualitateari lotuta dauden eta emakumei zuzenean eragiten dieten beste osasun esku-hartze batzuk haurdunaldiaren borondatezko etendurak (HBEak) dira. Euskadiko HBEen tasen bilakaerari buruzko azterketa batek erakusten du eragindako abortua mailaka igo dela 1992tik. Mila emakumeko HBEen tasa nabarmen hazi da azken hamar urteetan: 2,53 1992an eta 3,94 2002an. Gainera, estatistikek ume eta nerabeei egindako HBEei buruzko datuak ere barne hartzen dituzte: 2004an EAEn haurdunaldiaren 214 borondatezko etendura egin zitzaizkien 15 eta 19 urte bitarteko emakumei, eta beste 3 are txikiagoak ziren umei.

4. OSASUNA

4.1 Datu orokorrak

4.1. taula. Hautemandako osasuna, adin eta sexuaren arabera. 1997-2002.

	OSO ONA		ONA		NORMALA		TXARRA		OSO TXARRA	
	1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002
GUZTIRA										
Guztira	15,0	15,5	45,0	47,2	32,7	30,0	6,6	6,8	0,7	0,6
16-24	26,8	30,1	50,3	47,0	20,1	21,4	2,8	1,3	-	0,2
25-44	17,2	19,1	51,4	53,8	27,9	24,4	3,3	2,5	0,2	0,1
45-64	9,4	9,3	42,2	45,4	39,3	36,6	8,2	8,2	0,8	0,6
65 urte eta gehiago	7,4	7,2	30,6	37,1	44,7	37,2	14,9	16,6	2,3	1,9
EMAKUMEAK										
Guztira	13,8	14,1	45,2	45,8	34,0	31,5	6,2	7,9	0,8	0,7
16-24	23,6	25,7	50,9	46,1	22,1	26,7	3,4	1,3	-	0,3
25-44	16,7	17,7	53,4	53,3	27,6	26,0	2,2	2,9	0,2	0,1
45-64	9,2	9,7	40,8	43,7	42,6	37,4	6,5	8,7	0,9	0,5
65 urte eta gehiago	7,2	6,9	31,8	36,0	43,0	36,0	15,4	18,9	2,6	2,2
GIZONAK										
Guztira	16,2	17,0	44,9	48,6	31,3	28,3	7,1	5,5	0,6	0,5
16-24	29,8	34,4	49,7	47,9	18,2	16,4	2,3	1,2	-	0,2
25-44	17,7	20,4	49,5	54,3	28,2	22,9	4,5	2,2	0,2	0,2
45-64	9,7	8,8	43,7	47,1	35,8	35,8	10,0	7,8	0,8	0,6
65 urte eta gehiago	7,5	7,7	28,9	38,6	47,3	38,8	14,3	13,4	2,0	1,4

Iturria: Osasun Saila. Osasun Inkesta, 2002.

4.2. taula. Gorputz-jarduera, adin eta sexuaren arabera. 1997-2002.
(Portzentaje horizontalak)

	SEDENTARIOA		NEURRIZKOA		AKTIBOA		OSO AKTIBOA	
	1997	2002	1997	2002	1997	2002	1997	2002
GUZTIRA								
Guztira	56,9	64,6	19,0	16,9	14,8	13,0	9,3	7,3
16-24	53,0	56,4	16,9	18,9	15,0	10,3	15,1	11,7
25-44	56,9	65,3	19,7	17,2	14,2	11,7	9,2	7,2
45-64	58,2	65,0	19,1	16,9	14,7	11,2	8,0	6,4
65 urte eta gehiago	58,4	68,4	19,3	15,0	16,3	11,2	6,0	5,4
EMAKUMEAK								
Guztira	60,5	68,7	19,7	17,0	13,4	9,2	6,3	5,1
16-24	63,1	66,4	17,8	19,1	10,4	8,3	8,7	6,2
25-44	60,0	68,6	20,9	17,3	12,6	8,7	6,5	5,4
45-64	59,3	65,9	18,2	17,3	15,9	11,1	6,6	5,7
65 urte eta gehiago	61,2	73,6	21,3	14,7	13,8	8,4	3,7	3,2
GIZONAK								
Guztira	52,9	60,2	18,2	16,9	16,3	13,4	12,6	9,5
16-24	43,6	46,9	16,0	18,7	19,3	17,5	21,1	16,9
25-44	53,8	62,1	18,6	17,2	15,7	11,8	11,9	8,9
45-64	57,1	64,1	20,1	16,5	13,4	12,3	9,4	7,1
65 urte eta gehiago	54,3	61,1	16,4	15,3	20,0	15,3	9,3	8,4

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Osasun Inkesta. 2002.

4.2 Osasun-baliabideen erabilera

4.3. taula. Osakidetzako osasun-zerbitzuen erabilera azken urtean. 2004. (Portzentaje bertikalak)

	Emakumeak	Gizonak
Bai, osasun-zentroa, anbulatorioa edo antzekoa	53	48
Bai, ospitalea edo antzekoa	6	7
Bai, bi mailak	19	17
Ez	21	27
ED/EDE	0	1
GUZTIRA	100	100
ERABILERA-MAILA		
Norberaren erabilera-maila	78	72
Senideen erabilera-maila	12	14
Gizartearen erabilera-maila	86	90

Iturria: EAEko osasun-zerbitzuen erabilera eta balorazioari buruzko inkesta. Soziologia Prospekzioetarako Kabinetea, 2004ko maiatza.

4.4. taula. Medikuren kontsulten urteko maiztasuna, sexuaren arabera. 1997-2002.

	Emakumeak		Gizonak	
	1997	2004	1997	2004
Inoiz ez	17,8	17,7	25,4	23,7
Behin edo bitan	38,1	40	40,4	41,8
3tik 9ra	33,4	32,2	25,8	26,4
10etan eta gehiagotan	10,1	10,1	8,4	8,2

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

4.5. taula. Medikuren kontsulten urteko maiztasuna, adin eta sexuaren arabera. 2002.

	Kontsultak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
0-14	Inoiz ez	13,1	13,9	12,3
	Behin edo bitan	43,5	45,5	41,7
	3tik 9ra	34,8	32,8	36,6
	10etan eta gehiagotan	8,6	7,8	9,4
15-24	Inoiz ez	32,6	29,9	35,3
	Behin edo bitan	46,6	46,5	46,7
	3tik 9ra	17,8	20,1	15,6
	10etan eta gehiagotan	3	3,5	2,4
25-44	Inoiz ez	27,6	22,7	32,5
	Behin edo bitan	44,8	43,8	45,9
	3tik 9ra	22,2	26,8	17,8
	10etan eta gehiagotan	5,3	6,8	3,9
45-64	Inoiz ez	17,3	14,2	20,4
	Behin edo bitan	39,8	38,7	41
	3tik 9ra	31,9	35,3	28,4
	10etan eta gehiagotan	11	11,8	10,2
65 urte eta gehiago	Inoiz ez	7,7	7,8	7,5
	Behin edo bitan	28,2	27,9	28,7
	3tik 9ra	44,8	44,9	44,7
	10etan eta gehiagotan	19,3	19,4	19,1
Guztira	Inoiz ez	20,6	17,7	23,7
	Behin edo bitan	40,9	40	41,8
	3tik 9ra	29,4	32,2	26,4
	10etan eta gehiagotan	9,2	10,1	8,2

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

4.6. taula. EAEko biztanleria, sexuaren eta medikuaren azken kontsultatik igarotako denboraren arabera. (Pertsonak milakoetan eta portzentajeak)

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
2 astera arte	513,3	24,7	198,2	19,5	315,1	29,8
2 astetik 3 hilabetera	832,9	40,1	376,3	37	456,6	43,1
4 hilabetetik 12 hilabetera	386,9	18,6	237,1	23,3	149,7	14,1
12 hilabete baino gehiago	341,6	16,5	205,7	20,2	135,9	12,8
Inoiz ez	1,4	0,1	0	0	1,4	0,1
Guztira	2.076,1	100	1.017,4	100	1.058,7	100

Iturria: Osasun Inkesta Nazionala. 2003.

4.7. taula. Azken 2 asteetan medikuaren kontsultara joandako EAEko herritarrak, sexuaren eta kontsulta-kopuruaren arabera. (Pertsonak milakoetan eta portzentajeak)

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Guztira	513,3	100	315,1	100	198,2	100
Behin	420,2	81,9	254,2	80,7	166	83,7
Bitan edo gehiagotan	93,2	18,2	60,9	19,3	32,2	16,3
Guztira	513,3	100	315,1	100	198,2	100

Iturria: Osasun Inkesta Nazionala. 2003.

4.8. taula. Azken 2 asteetan medikuaren kontsultara joandako EAEko herritarrak, sexuaren eta kontsultaren arrazoiaren arabera. (Pertsonak milakoetan eta portzentajeak)

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Diagnostikoa eta/edo tratamendua	236	46	140,8	44,7	95,1	48
Azterketa	136,4	26,6	86,8	27,5	49,6	25
Errezetak egitea bakarrik	88,4	17,2	58,5	18,6	29,9	15,1
Beste arrazoi batzuk	52,6	10,2	29	9,2	23,6	11,9
Guztira	513,3	100	315,1	100	198,2	100

Iturria: Osasun Inkesta Nazionala. 2003.

4.9. taula. Azken 2 asteetan medikuaren kontsultara etxetik joandako EAEko herritarrak, sexuaren eta etxetik kontsultara joateko denboraren arabera. (Pertsonak milakoetan eta portzentajeak)

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
15 minutu ego gutxiago	334,9	74,8	209,6	78,2	125,3	69,7
16 minututik 30 minutura	80	17,9	38	14,2	42	23,4
30 minutu baino gehiago	32,8	7,3	20,4	7,6	12,4	6,9
Guztira	447,7	100	268	100	179,7	100

Iturria: Osasun Inkesta Nazionala. 2003.

4.10. taula. Azken 2 asteetan medikuaren kontsultara joandako EAEko herritarrak, sexuaren eta kontsultan itxarondako denboraren arabera. (Pertsonak milakoetan eta portzentajeak)

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
15 minutu edo gutxiago	345	69,4	212,7	69,7	132,3	68,8
16 minututik 50 minutura	129,4	26,0	77,5	25,4	51,9	27,1
50 minutu baino gehiago	23	4,6	15,1	4,9	8	4,1
Guztira	497,5	100	305,3	100	192,2	100

Iturria: Osasun Inkesta Nazionala. 2003.

4.11. taula. EAEko herritarren azken 12 hilabeteetako larrialdi-zerbitzuen erabilera, sexuaren arabera. (Pertsonak milakoetan eta ehunekoak).

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Larrialdi-zerbitzuak erabili ditu	477,6	23	241,3	22,8	236,3	23,2
Ez ditu erabili larrialdi-zerbitzuak	1598,5	77	817,4	77,2	781,1	76,8
Guztira	2076,1	100	1058,7	100	1017,4	100

Iturria: Osasun Inkesta Nazionala. 2003.

4.12. taula. Azken 12 hilabeteetan larrialdi-zerbitzuren bat erabili duten EAEko herritarrak, sexuaren eta larrialdietara egindako bisita-kopuruaren arabera. (Pertsonak milakoetan eta portzentajeak)

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Bisita-kopurua						
Bat	336,7	70,5	155,9	64,6	180,8	76,5
Bi edo gehiago	140,8	29,5	85,4	35,4	55,5	23,5
Guztira	477,6	100	241,3	100	236,3	100

Iturria: Osasun Inkesta Nazionala. 2003. Oharra: gizonen kasuan, "bi edo gehiago" ataleko datuak kontu handiarekin hartu behar dira, laginetan akatsak egon baitaitezke.

4.13. taula. Alta hartutako gaixoak eta 1.000 biztanleko tasa, behin betiko diagnostiko eta sexuaren arabera. 2004.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Altak	Tasa	Altak	Tasa	Altak	Tasa
Infekzio-gaixotasunak	3.914	1.9	1.631	1.5	2.283	2.2
Biriketako tuberkulosia	168	0.1	63	0.1	105	0.1
HIESa	572	0.3	153	0.1	419	0.4
Hepatitis birikoa	324	0.2	106	0.1	218	0.2
Tumoreak	24.823	11.7	11.663	10.8	13.160	12.7
Koloneko neoplasia gaiztoa	1.427	0.7	570	0.5	857	0.8
Trakea, bronkio eta biriketako neoplasia gaiztoa	1.439	0.7	229	0.2	1.210	1.2
Emakumeen bularreko neoplasia gaiztoa	1.617	1.5	1.617	1.5	-	-
Prostatiko neoplasia gaiztoa	911	0.9	-	-	911	0.9
Gaixt. endokrinoak eta metabolikoak	4.053	1.9	2.141	2.0	1.912	1.9
Diabetes mellitusa	1.625	0.8	753	0.7	872	0.8
Odol-gaixotasunak	2.641	1.2	1.339	1.2	1.302	1.3
Buru-gaixotasunak	4.991	2.4	2.213	2.0	2.778	2.7
Nerbio-sistemako eta zentzumenen organoetako gaixt.	27.690	13.1	16.151	14.9	11.539	11.2
Begi eta ondokoetako arazoak	20.005	9.5	11.489	10.6	8.516	8.2
Begi-lausoak	16.718	7.9	9.871	9.1	6.847	6.6
Otitisa	854	0.4	361	0.3	493	0.5
Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak	36.205	17.1	15.410	14.3	20.795	20.1
Hipertentsioa	1.670	0.8	838	0.8	832	0.8
Miokardioko infartu akutua	2.664	1.3	799	0.7	1.865	1.8
Arnas aparatuko gaixt.	24.595	11.6	9.457	8.8	15.138	14.7
Pneumonia	5.163	2.4	1.920	1.8	3.243	3.1
Bronkitisa	4.161	2.0	876	0.8	3.285	3.2
Asma	1.722	0.8	1.025	0.9	697	0.7
Pneumokoniosia eta bestelakoak	4.559	2.2	1.916	1.8	2.643	2.6
Digestio-aparatuko gaixt.	32.504	15.4	13.472	12.5	19.032	18.4
Urdaileko ultzerak	939	0.4	304	0.3	635	0.6
Apendizitisa	2.429	1.1	1.010	0.9	1.419	1.4
Sabelaldeko barrunbeto etena	8.014	3.8	2.021	1.9	5.993	5.8
OLT eta fisioterapeutak	480	427	89,0	53	11,0	
Klinika-laguntzaileak	3.620	3.354	92,7	266	7,3	
Okupazio-terapeuta	48	41	85,4	7	14,6	
Langile teknikoak	205	172	83,9	33	16,1	
Psikologoak eta pedagogoak	86	59	68,6	27	31,4	
Gizarte-laguntzailea	119	113	95,0	6	5,0	
Hezkuntzako langileak	706	503	71,2	203	28,8	
Hezitzaileak eta irakasleak	439	282	64,2	157	35,8	
Begiraleak, langileburuak eta enplegu-zentro berezietako buruak	221	182	82,4	39	17,6	
Eragile soziokulturalak	46	39	84,8	7	15,2	
Beste langileak	830	687	82,8	143	17,2	
Zerbitzu pertsonalak (zaintzaileak, etxeko laguntzaileak)	743	618	83,2	125	16,8	
Beste batzuk	87	69	79,3	18	20,7	

Iturria: Eustat. Gizarte Zerbitzuen Estatistika.

6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria zehatz definitu dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeko 50. artikuluan: “*sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan*”.

Emakumeen aurkako indarkeria-mota asko daude (indarkeria fisikoa, indarkeria psikikoa edo sexu-indarkeria), baina mota horiek guztiak arriskutsuak dira emakumeen osasun eta bizitzarako. Emakumeen aurkako indarkeria garrantzi handiko arazo soziala da, adin, egoera ekonomiko eta maila kultural guztietako emakumeei eragiten diena. Salaketetatik bildutako adierazle kuantitatiboen bidez gai horretara hurbiltzeak benetako eraginaren zati bat baino ez du islatzen. Hala ere, ezinbestekoa da hori egitea.

Txosten honetan bildutako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko adierazleak 2005ean Ertzaintzaren polizia-etxeetan jarritako salaketen arabera Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak egin duen estatistikatik atera dira. Datu horiek azterketarako garrantzitsuak badira ere, berriro azpimarratu behar da kasu gehienak eremu pribatuan geratzen direla, nahiz eta gero eta emakume gehiagok salatu indarkeriako egoerak. Hortaz, jarraian agertzen diren adierazleak kontuz interpretatu behar dira.

Herrizaingo Sailak emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako estatistikak bi kontzeptu bereizi ditu: biktimizazioak eta biktimak. Biktimizazioak indarkeria gertaera izan duten aldi eta kasu guztiak dira, batzuetan biktima pertsona bera dela alde batera utzita.

Bereizketa horrek pertsona berak (biktima) hainbat alditan indarkeria-egoera asko (biktimizazioak) jasaten dituela irudikatu nahi du.

2005ean EAEn emakumeen aurkako indarkeria-gertaeren eta tratu txarren delitu eta hutsegiteengatik salaketak 2.824 izan ziren, eta 2.591 emakumeri eragin zieten. Biktimizazio guztietatik 2.456 delitutzat eta 368 hutsegitezat jo ziren. Bai delituak, bai hutsegiteak, familia-eremuko lesioei eta ohiko tratu txarrei buruzkoak izan ziren, eta neurri txikiagoan, mehatxuei buruzkoak.

Emakumeek jasaten dituzten indarkeria eta tratu txarren gertaerak familia-eremuan edo biktimaren gertuko eremuan gertatu ohi dira. Kasu gehienetan, biktimaren mutil-lagunak erabiltzen du indarkeria. Gauzak horrela, ezkontideek edo antzekoek tratu txarrak emandako emakumeen estatistikak 1.832 biktima (indarkeriaren biktima guztien %70,7) zenbatu zituen 2005ean. Gertaerak familia-eremuan gertatutako lesio edo tratu txarrei buruzkoak dira gehienbat.

Indarkeria-gertaera horien ondorio fisikoak mota askotakoak dira. Indarkeria edo tratu txarren ondorioz, 2005ean lau emakume hil ziren, 19 larri zauritu ziren eta 901 arin. Gainera, salaketa gehienak (%54,9) EAEn jaiotako emakumeek jarri dituzte. Horien ondoren, estatuko gainerako herrialdeetatik etorritako emakumeek (%21,0) jarri dituzte, eta neurri txikiagoan, Amerikatik etorritakoek (%15,8). Zalantzarik gabe, salaketa jarritako emakumeen jatorriari buruzko datuak gehiago zehaztu behar dira atzerritarren kasuan; izan ere, emakume horietako batzuk irregulartasun-egoeran daude, eta, horregatik, arazoak izaten dituzte salaketa jartzeko. Adina beste aldagai garrantzitsu bat da emakumeen aurkako indarkeria aztertzerakoan. Salaketa dakarten gertaera gehienen protagonistak 60 urtetik beherako emakumeak dira. Horrela, 2005ean zenbatutako biktimizazio guztietatik %39,8 32 urtetik beherako emakumeenak dira, %51,52 33 eta 59 urte bitarteko emakumeenak eta %8,6 baino ez emakume nagusiagoena.

Sexu-askatasunaren aurkako delituak emakumeen aurkako beste indarkeria-mota bat dira. 2005ean 317 salaketa egon ziren. Delitu horiek honela sailkatu ziren funtsean: sexu-erasoa (173 kasu), sexu-abusuak (94 kasu) eta exhibizionismo eta probokazioa (45 kasu). Sexu-jazarpenaren salaketak oso urriak izan ziren, guztira bi **2006an**.

Sexu-askatasunaren aurkako delitu gisa sailkatutako gertaeren protagonistak emakume gazteak dira nagusiki. Tratu txarren egoerek, berriz, adin ertaineko emakumeei eragiten diete funtsean. Horrela, salaketen 247 (salaketa guztien % 77,9) 32 urtetik beherako emakumeenak izan ziren, eta 7 alditan baino ez ziren gertatu antzeko gertaerak 60 urtetik gorako emakumeekin. Aurreko urteetako joerari jarraituz, delitu horietako batzuk —exhibizionismoa eta sexu-probokazioa— emakume gazteenek jasaten dituzte.

Berriro ere EAEn jaiotako emakumeek salatzen dituzte gehien mota horretako gertaerak. Horrela, sexu-askatasunaren aurkako delituen %68,5etan erasotako emakumeak Euskal Autonomia Erkidegokoak dira, %12tan estatuko gainerako herrialdeetakoak, eta atzerritarren artean, berriro ere Amerika nabarmentzen da, salaketen %14,5 Amerikako emakumeek jarri dituzte eta.

Herrizaingo Sailak emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako txostenak familia-eremuan gertatutako beste arau-hauste batzuen gaineko estatistikak ere barneratzen ditu. Mota horretako egoerak — etxean indarrez sartzea, pentsio ekonomikorik ez ordaintzea, seme-alaben zainketa-araubideari lotutako arau-hausteak eta abar— 674 alditan salatu zituzten 2005ean, aurreko urteko salaketa-kopuruaren bikoitza baino gehiago. Horietatik erdiak baino gehiago (guztira 543) delitutzat jo zituzten. Arau-hauste arruntenak familia-harremanen aurkako delituen kategorian sartuta daude, edo zerikusia daukate adingabeen zainketa-araubidea ez betetzearekin.

6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

6.1. taula. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazioak, gertaera-motaren eta lurraldearen arabera. 2005

GERTAERA-MOTA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	% B
DELITUAK					
Giza hilketa eta bere motak	5	9	-	14	0,6
Giza hilketa	5	8	-	13	92,9
Hilketa	-	1	-	1	7,1
Lesioak	134	281	87	502	20,4
Arduragabekeriagatik egindako lesioak	-	1	-	1	0,2
Tratu txarrak familia-eremuan	127	260	76	463	92,2
Lesioak	7	20	11	38	7,6
Askatasunaren aurkakoak	29	80	60	169	6,9
Bahiketa	1	2	1	4	2,4
Mehatxuak	21	68	55	144	85,2
Derrigortzeak	7	10	4	21	12,4
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak	223	1.066	474	1.763	71,8
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak	1	2	1	4	0,2
Ohiko tratu txarrak familia-eremuan	222	1.064	473	1.759	99,8
Ohorearen aurkakoak	-	5	3	8	0,5
Kalumniak	-	2	3	5	0,3
Irainak	-	3	-	3	0,2
DELITUAK, GUZTIRA	391	1.441	624	2.456	87,0
PERTSONEN AURKAKO HUTSEGITEAK					
Lesioen hutsegitea	16	49	44	109	29,6
Lesioen hutsegitea arduragabekeriak jokatzeagatik	1	-	-	1	0,3
Lesiorik gabeko tratu txarren hutsegitea	5	5	6	16	4,3
Iseken hutsegitea	4	5	3	12	3,3
Mehatxuen hutsegitea	19	92	32	143	38,9
Derrigortzeen hutsegitea	5	39	13	57	15,5
Irainen hutsegitea	3	17	10	30	8,2
HUTSEGITEAK, GUZTIRA	53	207	108	368	13,0
GUZTIRA	444	1.648	732	2.824	100

Iturria: Herrizaingo Saila

6.2. taula. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak, indarkeriaren egilearekiko ahaidetasunaren eta lurraldearen arabera. 2005

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	
	Abs.	Abs.	Abs	Abs.	%
Ezkontidea edo antzekoa	304	1.045	483	1.832	70,7
Alaba adingabea	3	23	9	35	1,4
Ama	30	159	63	252	9,7
Gainerako senideak	66	279	127	472	18,2
GUZTIRA	403	1.506	682	2.591	100

Iturria: Herrizaingo Saila

6.3. taula. Ezkontideak edo antzekoak egindako emakumeen biktimizazioak, gertaera-motaren eta lurraldearen arabera. 2005

GERTAERA-MOTA	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%
DELITUAK					
Giza hilketa eta bere motak	2	6	-	8	0,4
Giza hilketa	2	5	-	7	0,4
Hilketa	-	1	-	1	0,1
Lesioak	111	188	69	368	19,7
Arduragabekeriagatik egindako lesioak	-	1	-	1	0,1
Tratu txarrak familia-eremuan	107	177	64	348	18,6
Lesioak	4	10	5	19	1,0
Askatasunaren aurkakoak	12	42	31	85	4,5
Bahiketa	-	1	1	2	0,1
Mehatxuak	7	37	28	72	3,8
Derrigortzeak	5	4	2	11	0,6
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak	193	826	386	1.405	75,1
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak	-	2	1	3	0,2
Ohiko tratu txarrak familia-eremuan	193	824	385	1.402	74,9
Ohorearen aurkakoak	-	3	2	5	0,3
Kalumniak	-	1	2	3	0,2
Irainak	-	2	-	2	0,1
DELITUAK, GUZTIRA	318	1.065	488	1.871	92,6
PERTSONEN AURKAKO HUTSEGITEAK					
Lesioak	4	14	10	28	18,7
Arduragabekeriagatik emandako tratu txarrak	1	-	-	1	0,7
Lesiorik gabeko tratu txarren hutsegitea	3	3	2	8	5,3
Iseken hutsegitea	4	3	1	8	5,3
Mehatxuen hutsegitea	5	38	12	55	36,7
Derrigortzeen hutsegitea	3	26	7	36	24,0
Irainen hutsegitea	2	8	4	14	9,3
HUTSEGITEAK, GUZTIRA	22	92	36	150	7,24
GUZTIRA	340	1.157	524	2.021	100

Iturria: Herrizaingo Saila

6.4. taula. Emakumeen biktimizazioak, gertaera-motaren eta kaltegarritasunaren arabera. 2005.

	Hila	Larri zauritua	Arin zauritua	Kalterik gabea	Ez daki	Guztira
DELITUAK, GUZTIRA	4	19	901	1335	197	2456
Giza hilketa eta bere motak	4	3	2	5	-	14
Lesioak	-	5	210	246	41	502
Askatasunaren aurkakoak	-	-	7	148	14	169
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak	-	11	682	928	142	1763
Ohorearen aurkakoak	-	-	-	8	-	8
HUTSEGITEAK, GUZTIRA	-	2	83	273	10	368
GUZTIRA	4	21	984	1.608	207	2824

Iturria: Herrizaingo Saila

6.5. taula. Emakumeen biktimizazioak, gertaera-motaren eta jaioterriaren arabera. 2005.

		EAE	Estatu ko gainerako herrialdeak	25en EB	Europako gainerako herrialdeak	Afrika	Amerika	Asia	Beste batzuk	Guztira
DELITUAK, GUZTIRA	Abs.	1.314	515	50	48	81	412	8	28	2.456
	%	53,5	21,0	2,0	2,0	3,3	16,8	0,3	1,1	100,0
Giza hilketa eta bere motak		9	2	-	-	1	2	-	-	14
Lesioak		276	83	11	7	22	91	3	9	502
Askatasunaren aurkakoak		102	39	4	4	5	15	-	-	-
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak		923	390	34	37	53	302	5	19	1.763
Ohorearen aurkakoak		4	1	1	-	-	2	-	-	8
HUTSEGITEAK, GUZTIRA	Abs.	237	79	4	5	7	33	1	2	368
	%	64,4	21,5	1,1	1,4	1,9	9,0	0,3	0,5	100,0
GUZTIRA	Abs.	1.551	594	54	53	88	445	9	30	2.824
	%	54,9	21,0	1,9	1,9	3,1	15,8	0,3	1,1	100,0

Iturria: Herrizaingo Saila

6.6. taula. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazioak, gertaera-motaren eta adin-taldearen arabera. 2005

		32 urtera artekoak	33 eta 59 urte bitartekoa k	60 urtetik gorakoak	Guztira
DELITUAK					
Giza hilketa eta bere motak		3	9	2	14
Giza hilketa		2	9	2	13
Hilketa		1	0	0	1
Lesioak		217	248	37	502
Arduragabekeriagatik egindako lesioak		-	1	-	1
Tratu txarrak familia-eremuan		196	233	34	463
Lesioak		21	14	3	38
Askatasunaren aurkakoak		71	84	14	169
Bahiketa		3	1	-	4
Mehatxuak		60	74	10	144
Derrigortzeak		8	9	4	21
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak		695	911	157	1.763
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak		1	3	-	4
Ohiko tratu txarrak familia-eremuan		694	908	157	1759
Ohorearen aurkakoak		5	3	-	8
Kalumniak		2	3	-	5
Irainak		3	-	-	3
DELITUAK, GUZTIRA	Abs.	991	1.255	210	2.456
	%	40,4	51,1	8,6	100,0
PERTSONEN AURKAKO HUTSEGITEAK					
Lesioen hutsegitea		47	55	7	109
Lesioen hutsegitea arduragabekeriak jokatzeagatik		-	-	1	1
Lesiorik gabeko tratu txarren hutsegitea		10	4	2	16
Iseken hutsegitea		2	9	1	12
Mehatxuen hutsegitea		50	78	15	143
Derrigortzeen hutsegitea		19	33	5	57
Irainen hutsegitea		6	21	3	30
HUTSEGITEAK, GUZTIRA	Abs.	134	200	34	368
	%	36,4	54,3	9,2	100,0
GUZTIRA	Abs	1.125	1.455	244	2.824
	%	39,8	51,5	8,6	100,0

Iturria: Herrizaingo Saila

6.7. taula. Sexu-askatasunaren aurkako delituen emakumeen biktimizazioak, gertaeremotaren eta lurraldearen arabera. 2005

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	
Sexu-erasoa		50	86	37	173	54,6
Sexu-abusua		13	56	25	94	29,7
Sexu-jazarpena		-	2	-	2	0,6
Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa		7	34	4	45	14,2
Adingabeen galbideratzea		-	1	-	1	0,3
Prostituzioa		-	2	-	2	0,6
Guztira	Abs.	70	181	66	317	100,0
	%	22,1	57,1	20,8	100,0	100,0

Iturria: Herrizaingo Saila

6.8. taula. Sexu-askatasunaren aurkako delituen emakumeen biktimizazioak, gertaeremotaren eta adin-taldearen arabera. 2005

		32 urtera artekoak	33 eta 59 urte bitartekoak	60 urtetik gorakoak	GUZTIRA
Sexu-erasoa		127	42	4	173
Sexu-abusua		71	20	3	94
Sexu-jazarpena		1	1	-	2
Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa		45	-	-	45
Adingabeen galbideratzea		1	-	-	2
Prostituzioa		2	-	-	2
Guztira	Abs.	247	63	7	317
	%	77,9	19,9	2,2	100,0

Iturria: Herrizaingo Saila

6.9. taula. Sexu-askatasunaren aurkako delituen emakumeen biktimizazioak, gertaeremotaren eta jaioterriaren arabera. 2005

		EAE	Estatuko gainerako herrialdeak	25en EB	Europako gainerako herrialdeak	Afrika	Amerika	Beste batzuk	Guztira
Sexu-erasoa		110	23	5	1	3	31	-	173
Sexu-abusua		65	13	1	2	-	12	1	94
Sexu-jazarpena		1	-	-	1	-	-	-	2
Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa		41	2	-	-	1	1	-	45
Adingabeen galbideratzea		-	-	-	-	-	1	-	1
Prostituzioa		-	-	-	1	-	1	-	2
Guztira	Abs.	217	38	6	5	4	46	1	317
	%	68,5	12,0	1,9	1,6	1,3	14,5	0,3	100,0

Iturria: Herrizaingo Saila

6.10. taula. Familia-eremuari lotutako beste arau-hauste batzuen emakumeen biktimizazioak, gertaera-motaren eta lurraldearen arabera. 2004

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%
DELITUAK					
Intimitatearen eta nork bere irudia izateko eskubidearen aurkakoak eta abar	1	1	1	3	0,6
Etxean indarrez sartzea eta abar	1	1	1	3	100,0
Familia-harremanen aurkakoak	20	68	22	110	20,3
Zaindu beharra ez betetzea	-	19	11	30	27,3
Adingabea etxera uztera bultzatzea	-	1	-	1	0,9
Adingabeari zainketa-araubidea haustea eragitea	2	-	-	2	1,8
Adingabea bahitzea	1	9	2	12	10,9
Familia bertan behera uztea	4	20	3	27	24,5
Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea	13	14	3	30	27,3
Adingabeak bertan behera uztea	-	5	3	8	7,3
Justizia Administrazioaren kontrakoak	77	233	120	430	79,2
Segurtasun-neurriak, kautelazko neurriak, zigorrak eta abar haustea	77	233	120	430	100,0
DELITUAK, GUZTIRA	98	302	143	543	80,6
PERTSONEN AURKAKO HUTSEGITEAK					
Gurasoek adingabearen zainketa ez betetzeagatik egindako hutsegitea	5	39	15	59	45,0
Dibortzioan hitzarmen/ebazpen judiziala ez betetzeagatik egindako hutsegitea	15	40	17	72	55,0
HUTSEGITEAK, GUZTIRA	20	79	32	131	19,4
GUZTIRA	118	381	175	674	100,0

Iturria: Herrizaingo Saila

7. ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA HERRITARREN PARTAIDETZA

Erakunde publikoak eta herritarren partaidetza funtsezko elementuak dira gaur egungo gizarte demokratikoetan. Alor horretan egindako ikerketa askotan argi geratu da emakumeek hainbat eremu sozial eta ekonomikotan jasandako desberdintasunak eta orain arte esleitu izan zaizkien jarduerak egiteak galarazi edo gutxienez oztopatu egin dietela bizitza politiko eta sozialean parte hartzea. Hala eta guztiz ere, azken hamarkadetan emakumeak eremu horietara sartu dira apurka-apurka. Erakunde publikoei buruzko atalean, ordezkatzeko-erakundeetan zenbat emakume eta gizon dauden erakusten duten adierazleak landuko ditugu lehen-lehenik. Bigarren, administrazioko karguei buruzko zenbait datu. Hirugarren, eragile soziopolitikoari buruzko informazioa. Eta azkenean, berriz, sexuen arteko berdintasunerako esku-hartze publikoaren adierazleak.

7.1. Ordezkatzeko-erakundeetako emakumeak eta gizonak

Azken hamarkadetan gero eta emakume gehiago daude euskal erakundeetan, baina kasu gehienetan gizonak baino gutxiago dira. Lehen atal honetan, ordezkatzeko-erakundeetako datuak jaso ditugu, Eusko Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan, udaletan, Kongresuan eta Senatuan dagoen emakume- eta gizon-kopurua. Kasu guztietan, Eusko Legebiltzarrean izan ezik, gizonen proportzioa emakumeena baino handiagoa da. Senatuko euskal ordezkariaren % 26,7 dira emakumeak, eta Eusko Legebiltzarrean, berriz, ordezkarien % 53,3.

Hain zuzen, Eusko Legebiltzarreko 2005eko azken hauteskundeek asko aldatu zuten ordura arteko joera. Emakumeak gehitzen ari ziren pixkanaka-pixkanaka, baina Legebiltzarrean gizon gehiago zegoen oraindik. Zalantzarik gabe, alderdi erabakigarria izan zen *otsailaren*

18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onartu izana. Lege horren barruan zegoen erabakiak hartzeko eremuetan emakumeen eta gizonen oreka lortzeko helburua, eta Eusko Jaurlaritzako eta Batzar Nagusietako hauteskunde-legeak aldatuta gauzatu zen helburu hori.² Horren ondorioz, gaur egungo Legebiltzarreko eserlekuetan emakume gehiago dago gizonak baino, zehatz-mehatz 75 eta 40 hurrenez hurren. Alderdi politikoek arteko aldeak kontuan hartuta, gehienek bi sexuen ordezkari-tza parekatua dutela ikusten da, % 45 edo 55 ingurukoa. Alor horretan, EHAK nabarmentzen da, ordezkarien % 88,9 baitira emakumeak. Aralar ere azpimarratu behar da, ordezkari bakarra emakumea baita. Kontrako kasuan dago, berriz, Ezker Batua, bere hiru eserlekuetatik bakarrean baitago emakumea.

Foru-erakundeetan gero eta emakume gehiago dago azken urteetan. Gaur egun % 30,1 daude hiru lurralde historikoetako Batzar Nagusietan. Lurraldeak kontuan hartuta, Araban eta Gipuzkoan % 25 inguruan dago portzentajea, eta Bizkaian, berriz, % 41,2ra igotzen da. Bestalde, udal-erakundeetako emakume-kopurua ugartu egin da 1979ko lehenengo udal-hauteskunde demokratikoetatik: zinegotzien % 7 emakumeak izatetik, 2003ko azken hauteskundeetako % 28,4ra. Hala ere, emakumeen eta gizonen alde nabarmena hautematen da alkatezietan erreparatuta: EAEko emakume alkateen portzentajea % 14,9koa da. Lurralde historikoak kontuan hartuta, Gipuzkoak du portzentaje handiena (alkateen % 21,4 emakumeak) eta txikiena Bizkaian (% 9,8 bakarrik). Kopuru horiek guztiak txiki geratzen dira zinegotzien portzentajeak (% 28,4) kontuan hartuta.

² Legearen arabera, "alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesleen elkarteek aurkezten dituzte hautagai-zerrendetan, % 50 gutxienez emakumeak izango dira. Proporzio hori hautagai-zerrenda osoan eta sei izeneko tarte bakoitzean mantenduko da" (Eusko Legebiltzarreko Hauteskunderen buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldatzen duen laugarren azken xedapena eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskunderen buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legea aldatzen duen azken bosgarren xedapena).

Azkenik, Estatuko ordezkatzeko-erakundeetako EAEko biztanleriaren ordezkariak era honetara banatuta daude: Kongresuko eserlekuetan 7 emakume eta 12 gizon daude, eta horietatik 4 senatari dira emakumeak eta 11 gizonak.

2005eko maiatzeko hauteskundeetarako Eusko Legebiltzarrerako hautagai-zerrenden osakerak Berdintasunerako Legeak agindutako gidallerroei jarraitu die. Horrela, hautagai-zerrenda gehienetan emakumeak eta gizonak modu orekatuan egon dira, formula 12/13 izan da gehienbat, sexu baten ala besteren alde. Zenbait kasutan, EHAK-k hiru lurraldeetan aurkeztutako zerrendetan kasu, gehienak emakumeak izan dira (hautagaien % 60). Hauteskunde-zerrenden osakera eta bi sexuen barneko banaketa ezberdinak izan dira, eta Aralarrek aurkeztutako zerrendetan baino ezin da aurkitu gizon eta emakumeen txandaketa, *kremailera* izenarekin ezagututako sistema. Hala ere, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako hautagai-zerrendetan gehienak emakumeak izan diren arren, zerrendaburu gehienak gizonak izan dira. Izan ere, aztertutako 18 hautagai-zerrendetatik emakumeak 6tan baino ez ziren zerrendako buruak. Alde horretatik, EHAK eta Alderdi Popularra azpimarratu behar dira, lehenengoak emakumeak bakarrik aurkeztu zituelako zerrendako buru, eta bigarreneko lehendakariak emakumea zelako.

7.2. Gobernu-erakundeak eta administrazio publikoa

Gobernuetan eta gobernu-organoetan emakumeen eta gizonen banaketa nolakoa den aztertzen badugu, ikusiko dugu emakumeen kopurua txikiagoa dela legebiltzarretan baino. Hala ere, azken urteetan asko aldatu da euskal administrazioetan izendapen politiko bidez aukeratutako karguetan dagoen emakumeen eta gizonen banaketa. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako goi-karguen (hau da, sailen, sailburuordetzen eta zuzendaritzen) % 34,3tan daude emakumeak.

Azken urteotan gero eta emakume gehiago dira sailen titular; gaur egungo gobernuan, esaterako, % 45,4 dira, eta kide guztietatik bost dira emakumeak. Gobernu-mailako kargu politikoetara sartzeko zailtasun handiagoak dituzte emakumeek beste eremu batzuetan. Gizon gehiago dago sailburuordetzetan eta idazkaritza nagusietan —ordezkari guztien % 91,2—. Zuzendaritzen kasuan, % 37,4tan daude emakumeak.

Emakumeak gobernu-erakundeetan sartzeari buruz egindako azterketa batzuek erakutsi dute tradizioz eduki izan dituzten zereginekin lotutako eremu jakin batzuetara (Gizarte Gaietara, Kulturara, Osasunera eta Hezkuntzara esaterako) sartzeko izan dutela arazo gutxien. Ikuspegi horri jarraituz, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko goi-karguen banaketa kontuan hartzen badugu, sailetatik bitan bakarrik (Osasunean eta Kulturaren) dira emakumeak erdia baino gehiago. Lehendakaritza, Ogasun eta Nekazaritza eta Arrantza Sailetan, berriz, goi-karguen % 20tan ere ez daude emakumeak.

Foru Aldundietako gobernu-organoen kasuan, hiru lurralde historikoetako Foru Aldundien goi-karguetatik % 16,5etan daude emakumeak (sailetako eta zuzendaritzetako arduradunak kontuan hartuta). Oraingoz, ahaldun nagusia inoiz ez da emakumea izan, eta gaur egun 6 emakumek bakarrik dute ahaldun kargua. Gizonen kasuan, berriz, 26 dira foru-departamentuen arduradun nagusi. Zuzendaritza nagusien datuak ez dira askoz hobeak; izan ere, 60 zuzendaritzatan daude gizonak buru eta 11 bakarrik zuzentzen dituzte emakumeek.

Izendapen politikoko beste postu batzuetako emakumeei dagokienez, hainbat erakunde publikotako lehendakaritzak edo zuzendaritzak azter ditzakegu: 4 emakume eta 9 gizon daude erakunde autonomoetako, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako, kontseiluetako eta

Parlamentuari lotutako beste organo batzuetako buru. Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia, Emakunde, Osakidetza eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia zuzentzen dituzte emakumeek gaur egun.

Autonomia Erkidegoko administrazioko langileak sexuaren arabera banatzen baditugu, ikusten dugu EAE laugarren tokian dagoela Estatu-mailan emakumeen proportzioari dagokionez, % 45,3rekin. Nafarroak eta bi Gaztelek bakarrik gainditzen dute.

7.3. Partaidetza soziala eta ekonomikoa: alderdiak, sindikatuak, elkarteak eta enpresak

Alderdi politikoak eta sindikatuak funtsezko bi elementu dira partaidetza politikoko prozesuetan. Bi elementu horiek garrantzi handia dute emakumeak erakunde publikoetan egoteko; izan ere, erabakiak hartzeko eremuetara sartzeko aukera oso lotuta dago eragile horien zereginarekin. Zalantzarik gabe, alderdi politikoak dira bereziki elite politikoak biltzeko egiturak.

Azken hamarkadan hainbat aldaketa izan du alderdi politikoetako emakume- eta gizon-kopuruak, baina, hala ere, gizon gehiago dago EAeko alderdi guztien buruzagitzan. Alderdi politiko batetik bestera, alde nabarmenak daude buruzagitzetan: PSE-EEK du portzentaje orekatuena (% 42,9) eta ondoren Alderdi Popularrak (% 38,3). Kontrako muturrean, EAJ nabarmentzen da. Gaur egun bi emakume ditu buruzagitzan, kide guztien % 16,7.

EAeko sindikatuen zuzendaritza-organoetan alderdietan baino oreka handiagoa dago gizonen eta emakumeen ordezkartzari dagokionez. Azken urteetan aldaketak egin dira euskal sindikatuen egitura eta buruzagitzetan, eta, horrela, emakume gehiago sartu ahal izan dira zuzendaritza-organoetara. Horrez gain, berdintasuna eta generoaren

ikuspegia eraman ahal izan dute barne-eztabaida eta aldarrikapenetara. Horren ondorioz, orain dela gutxira arte halakorik gertatzen ez bazen ere, EAEko sindikatu nagusien buruzagitzetan emakume gehiago dago oro har alderdi politikoetan baino. LAB eta EILAS sindikatuak nabarmendu behar ditugu alor horretan, parekotasuna baitute buruzagitzan.

Gaur egun emakumeen 384 elkarte daude erregistratuta EAEn. Horietatik erdiek baino gehiagok Bizkaian dute egoitza. Elkarte horietatik % 37,5ek arlo soziokulturalean jarduten dute, eta % 13,8k arlo soziokulturalean eta prestakuntza-arloan. Elkarteak arlo soziokulturalean, prestakuntza-arloan, laguntza- eta osasun-arloetan eta hausnarketa feministako arloan sailkatzeak mugak dituela nabarmendu behar da; izan ere, elkarteen ia laurden batek beste arlo batzuetan jarduten du.

Lehendabiziko aldiz sartu dira atal honetan enpresa-erakundeen eta erakunde profesionalen goi-maila hierarkikoetan dagoen emakume- eta gizon-kopuruaren adierazleak. EAEko enpresa-elkarte nagusiei dagokienez, berriaz enpresari emakumeak dituztenek soilik dute emakumea lehendakaritzan. Gainerakoetan, berriz, gizonak dira lehendakari. EAEn egoitza duten zortzi ganbera ofizialetatik bik (Araba eta Bizkaiko Jabetza Hiritarrekoak) bakarrik dituzte emakume lehendakariak. Profesionalen elkargoei dagokienez, hiru lurralde historikoetako 107 elkargoetatik % 13,1ek bakarrik du emakumea lehendakari.

Enpresetan are eta emakume gutxiago egoten dira orain arte aipatutako elkarteetan baino. Burtsan kotizatzen duten EAEko enpresen (13 erakunderen) administrazio kontseiluen osaera kontuan hartzen badugu, 142 kontseilarietatik zortzi bakarrik dira emakumeak; hau da, % 5,3 bakarrik. Zerrenda honetako enpresa gehienek gizonen bakarrik

osatutako kontseiluak dituzte. Hala ere, Azkar Garraioak enpresaren kasua nabarmendu behar da, kontseiluko 10 kideetatik 4 emakumeak baitira. Antzeko joera dago EAEn egoitza duten hiru aurrezki-kutxen administrazio kontseiluetan, baina kasu horretan 50etik 5 dira emakumeak; hau da, % 10. Ez dugu ahaztu behar aurrezki-kutxen administrazio kontseiluetan ordezkari politikoek parte hartzen dutela nahitaez, eta, beraz, errazagoa izan daiteke horrela emakumeak sartzea.

7.4. Berdintasunerako esku-hartze publikoa

Parlamentu demokratikoek hainbat zeregin izaten dituzte legegintzatik eta ordezkaritzaatik aparte; izan ere, oso eginkizun garrantzitsua dute politika publikoak definitzen eta egiten. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Parlamentuko jarduerak erakusten du gaia agenda politikoan dagoela. 1980an Eusko Legebiltzarra sortu zenetik, 160 ekimen aurkeztu dira guztira Legebiltzarrean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotuta. Denborari erreparatzen badiogu, VII. legegintzaldian (58 guztira) eta 2005ean hasitako legegintzaldian (43 guztira gaur egunera arte) egon dira ekimen gehienak.

Ekimen-kopurua ez ezik, garrantzitsua da zer motatako ekimenak aurkeztu diren kontuan izatea. Sexuen berdintasunarekin lotutako parlamentu-jarduera gobernuaren kontrolean kokatu da gehienbat; izan ere, aurkeztutako ekimen gehienak (107 guztira, hau da, % 66,5) kontroleko eta informazioko ekimenak izan dira: galderak, interpelazioak, informazio-eskaerak edo kargudun publikoen agerraldiak. Bigarren, Eusko Legebiltzarrak sustapen-funtzioa ere izan du, legez besteko proposamenak eta erakunde-adierazpenak kontuan hartuta, 41 guztira, ekimenen % 25,5. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lege-jarduera ez da horren ugaria izan: Eusko Legebiltzarrak legezko proposamen bakarra (baztertu egin zuten)

izapidetu du urte hauetan eta bi lege-proiektu bakarrik onartu ditu sexuen arteko berdintasunari lotuta (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko legea 1988an eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea 2005ean).

Ekintza positiboko planak edo aukera-berdintasuneko planak izan dira sexuen berdintasunerako politika publikoak garatzeko tresna nagusiak. Mota horretako tresnen erabilera zabaltzen joan da Erkidegotik tokiko administraziora eta foru-mailatik udalerrira. Udal-erakunde batzuek abiatu zuten bidea, eta berdintasunerako onartu zen lehen foru-plana Araban onartu zen 1999an. Bizkaiko Aldundia etorri zen ondoren 2000. urtean (gaur egun bigarrena dago indarrean) eta Gipuzkoako Foru Aldundia 2003an.

Azken urteetan asko hazi da berdintasun-programa edo -plana onartu duten EAeko udaletxeen kopurua. Hiru hiriburuetakoko udal-administrazioez gain, 43 euskal udalerrik ere badute plan bat. Plan gehienak 2001etik aurrera onartu zituzten, eta sei udalerrik (ia gehienak Bizkaikoak) abian dute jada bigarren plana: Arrasatek, Basaurik, Berrizek, Bilbok, Eibarrek, Ermuak eta Getxok.

7. ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA HERRITARREN PARTAIDETZA

7.1. Ordezkatze-erakundeetako emakumeak eta gizonak

7.1. taula. EAEn ordezkaritza politikoko karguetan dauden emakumeak eta gizonak. Kopuru absolutuak eta portzentaje horizontalak. 2006.

	Guztira	Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%
Kongresua	19	7	36,8	12	63,2
Senatua	15	4	26,7	11	73,3
Eusko Legebiltzarra	75	40	53,3	35	46,7
Batzar Nagusiak	153	47	30,1	107	69,9
Udalak	2511	713	28,4	1798	71,6


Iturria: Elizondo, Arantxa, Eva Martínez, Ainhoa Novo eta Itziar Casillasen datuak abiapuntu hartuta guk egina. 2005. *Emakumeen eta gizonen partaidetza sozial eta politikoa Euskadin*. Gasteiz: Emakunde, 22. orria; Eusko Legebiltzarreko, Diputatuen Kongresuko eta Senatuko dokumentazio-zerbitzuak (parlamento.euskadi.net, www.congreso.es, www.senado.es). Kongresuaren eta Senatuaren kasuan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa ordezkatzeko eserlekuak adierazten ditu.

7.2. taula. Eusko Legebiltzarreko emakumeen eta gizonen portzentajearen bilakaera. 1980-2006.

	Emakumeen %	Gizonen %
1980	6,7	93,3
1984	10,7	89,3
1986	13,3	86,7
1990	20,0	80,0
1994	24,0	76,0
1998	29,3	70,7
2001	37,3	62,7
2005	53,3	46,7

Iturria: Eusko Legebiltzarreko dokumentazio-zerbitzuko datuak <parlamento.euskadi.net> abiapuntu hartuta guk egina

7.1. grafikoa. Eusko Legebiltzarreko emakumeen eta gizonen portzentajearen bilakaera. 1980-2005.



Iturria: Eusko Legebiltzarreko dokumentazio-zerbitzuko datuak <parlamento.euskadi.net> abiapuntu hartuta guk egina

7.3. taula. Eusko Legebiltzarreko emakumeak eta gizonak, alderdi politikoaren arabera. 2006.

	Emakumeak		Gizonak		GUZTIRA
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
EAJ-EA	11	50,0	11	50,0	22
EA	4	57,1	3	42,9	7
PSE	9	50,0	9	50,0	18
PP	6	40,0	9	60,0	15
EHAK	8	88,9	1	11,1	9
EB	1	33,3	2	66,7	3
Aralar	1	100,0	0	0,0	1
Guztira	40	53,3	35	46,7	75

Iturria: Eusko Legebiltzarreko dokumentazio-zerbitzuko datuak oinarri hartuta guk egina <parlamento.euskadi.net>

7.4. taula. Hiru lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako aukeratutako pertsonak, sexuaren arabera. 2003.

	Emakumeak		Gizonak		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
Araba	13	25,5	38	74,5	51
Bizkaia	21	41,2	30	58,8	51
Gipuzkoa	13	25,5	38	74,5	51
Guztira	47	30,1	107	69,9	153


Iturria: Elizondo, Arantxa, Eva Martinez, Ainhoa Novo eta Itziar Casillas. 2005. *Emakumeen eta gizonen partaidetza sozial eta politikoa Euskadin*. Gasteiz: Emakunde, 22. orria.

7.5. taula. EAEko udaletako emakumeen bilakaera. Kopuru absolutuak eta zinegotzi emakumeen portzentajeak. 1979-2003.

	1979	1983	1987	1991	1995	1999	2003
Guztira	2.428	2.452	2.505	2.539	2.262	2.540	2.511
Emakumeak	170	201	295	407	512	690	713
Emakumeen %	7,0	8,2	11,8	16,0	22,6	27,2	28,4

Iturria: Elizondo, Arantxa, Eva Martínez, Ainhoa Novo eta Itziar Casillas. 2005. *Emakumeen eta gizonen partaidetza sozial eta politikoa Euskadin*. Gasteiz: Emakunde, 24. orria.

7.2. grafikoa. EAEko udaletako zinegotzi emakume eta gizonen portzentajearen bilakaera. 1979-2003.



Iturria: Elizondo, Arantxa, Eva Martínez, Ainhoa Novo eta Itziar Casillas. 2005. *Emakumeen eta gizonen partaidetza sozial eta politikoa Euskadin*. Gasteiz: Emakunde, 24. orria.

7.6. taula. EAEko udaletako alkate emakumeak eta gizonak. 2006.

	Emakumeak		Gizonak		Guztira*
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
Araba	8	15,4	44	84,6	52
Bizkaia	11	9,8	101	90,2	112
Gipuzkoa	18	21,4	66	78,6	84
Guztira	37	14,9	211	85,1	248

Iturria: EUDELeko datuak (2006ko ekainaren 6an eguneratutako datuak) abiapuntu hartuta guk egina (<http://www.eudel.es>).

7.7. taula. Lurralde historiko bakoitzean Kongresurako eta Senaturako EAEn aukeratutako pertsonak, sexuaren arabera. 2004.

	Kongresua		Senatua		Guztira
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	
Araba	2	2	1	3	8
Bizkaia	3	6	2	2	13
Gipuzkoa	2	4	1	3	10
Eusko Jaurlaritzaren izendapena	-	-	0	3	3
GUZTIRA	7	12	4	11	34

Iturria: www.congreso.es eta www.senado.es

7.8. taula. Lurralde historiko bakoitzak Eusko Legebiltzarrerako egindako hautagai-zerrenden osaera, sexuaren arabera. 2005.

	Hautagai emakumeak		Hautagai gizonak		Zerrendaburuak
	Kop.	%	Kop.	%	
Araba	80	53,3	70	46,7	4 gizon 2 emakume
Bizkaia	80	53,3	70	46,7	5 gizon emakume 1
Gipuzkoa	80	53,3	70	46,7	3 gizon 3 emakume
EAE OSOA	240	53,3	210	46,7	12 gizon 6 emakume

Iturria: 2005eko martxoaren 22ko EHAako zerrenden arabera, Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeetarako hautagai-zerrenden datuetatik abiatuta guk egina. Oharra: Parlamentuan ordezkari izan zuten alderdi politikoekin kopuruak dira.

7.9. taula. Lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskunde-zerrendetako hautagaiak, sexuaren arabera. 2003.

	Hautagai emakumeak		Hautagai gizonak		Guztira
	Kop.	%	Kop.	%	
Araba	142	35,6	257	64,4	399
Bizkaia	165	40,3	244	59,7	409
Gipuzkoa	173	42,5	234	57,5	407
Guztira	480	39,5	735	60,5	1215

Iturria: Elizondo, Arantxa, Eva Martínez, Ainhoa Novo eta Itziar Casillas. 2005. *Emakumeen eta gizonen partaidetza sozial eta politikoa Euskadin*. Gasteiz: Emakunde, 37. orria. Ordezkaritza lortu zuten alderdi politikoen informazioa da.

7.10. taula. Lurralde historikoetako udaletako hauteskunde-zerrendetako hautagaiak, sexuaren arabera. 2003.

	Hautagai emakumeak		Hautagai gizonak		Guztira
	Kop.	%	Kop.	%	
Araba	867	31,7	1869	68,3	2736
Bizkaia	2668	35,8	4783	64,2	7451
Gipuzkoa	1784	35,4	3251	64,6	5035
Guztira	5319	34,9	9903	65,1	15222

Iturria: Elizondo, Arantxa, Eva Martínez, Ainhoa Novo eta Itziar Casillas. 2005. *Emakumeen eta gizonen partaidetza sozial eta politikoa Euskadin*. Gasteiz: Emakunde, 41. orria. Ordezkaritza lortu zuten alderdi politikoen informazioa da.

7.2. Gobernu-erakundeak eta administrazio publikoa

7.11. taula. Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, sexuaren arabera. 2006.

	Guztira	Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%
Sailak	11	5	45,4	6	54,6
Sailburuordetzak / Idazkaritza nagusiak	35	7	8,8	28	91,2
Zuzendaritzak	123	46	37,4	77	62,6
Guztira	169	58	34,3	111	65,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzako direktoriotik abiatuta guk egina.

7.12. taula. Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, sailaren eta sexuaren arabera. 2006.

	Sailburuordetza k Idazkaritza nagusiak			Zuzendaritzak			Guztira	
	Guzt.	E	G	Guzt.	E	G	Emakumeen %	Gizonen %
Gobernuko Lehendakariak	3	0	3	8	2	6	18,2	81,8
Gobernuko Lehendakariordetza	3	0	3	8	4	4	36,4	63,6
Ogasuna eta Administrazio Publikoa	4	0	4	12	3	9	18,7	81,3
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	4	1	3	10	3	7	28,6	71,4
Herrizaingo Saila	2	1	1	13	4	9	33,3	66,7
Industria, Merkataritza eta Turismoa	4	1	3	13	5	8	35,3	64,7
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	2	0	2	9	4	5	36,4	63,6
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	4	1	3	13	5	8	35,3	64,7
Osasuna	2	0	2	8	5	3	50,0	50
Kultura	2	0	2	9	6	3	54,5	45,5
Lurralde Antolamendua eta Ingurumena	2	1	1	7	3	4	44,4	55,6
Garraioa eta Herri Lanak	1	1	0	5	1	4	33,3	66,7
Nekazaritza eta Arrantza	2	1	1	8	1	7	20,0	80
Guztira	35	7	28	123	46	77	22,9	77,1

Iturria: Eusko Jaurlaritzako direktoriotik abiatuta guk egina.

7.13. taula. Foru Aldundietako diputatu emakume eta gizonen bilakaera. 1991-2003.

	1991		1999		2003	
	E	G	E	G	E	G
Araba	1	9	1	9	1	9
Bizkaia	0	12	2	9	1	11
Gipuzkoa	2	11	1	8	3	8
Guztira	3	32	4	26	5	28

Iturria: Elizondo, Arantxa, Eva Martínez, Ainhoa Novo eta Itziar Casillasen datuak abiapuntu hartuta guk egina. 2005. *Emakumeen eta gizonen partaidetza sozial eta politikoa Euskadin*. Gasteiz: Emakunde, 62. orria.

7.14. taula. Foru Aldundietako goi-kargudunak, sexuaren arabera. 2006.

	Foru ahaldunak*		Zuzendaritza nagusiak		Guztira		
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Abs.	Emakumeen %	Gizonen %
Araba	3	7	2	15	27	18,5	81,5
Bizkaia	1	10	4	23	38	13,2	86,8
Gipuzkoa	2	9	5	22	34	20,6	79,4
Guztira	6	26	11	60	103	16,5	83,5

Iturria: Foru Aldundietako informazio-zerbitzuak oinarri hartuta guk egina. *Hiru ahaldun nagusiak ere barneratu dira.

7.15. taula. Erakunde publikoen (erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, kontseiluen eta Parlamentuari lotutako beste erakunde batzuen) zuzendaritza edo lehendakaritza, sexuaren arabera. 2004.

Erakunde autonomoak	Arduraduna
HAEE- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea	gizona
HABE- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea	gizona
Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia	emakumea
Eustat- Euskal Estatistika Erakundea	gizona
Emakunde- Emakumearen Erakundea	emakumea
Osalan- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	gizona
Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak	
Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzua	emakumea
EVE- Energiaren Euskal Erakundea	gizona
Kontseiluak	
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea	gizona
Lan Harremanen Kontseilua	gizona
Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua	gizona
Parlamentuaren mendeko organoak	
Herri Kontuen Euskal Epaitegia	emakumea
Arartekoa	gizona
GUZTIRA	4 emakume 9 gizon

Iturria: Eusko Jaurlaritzako direktoriotik abiatuta guk egina.

7. 16. taula. Autonomia erkidegoetako langileak, sexuaren arabera. 2003.

Autonomia erkidegoak	Guztira	Emakumeak	%	Gizonak	%
Nafarroa	4.767	2.192	46,0	2.575	54,0
Gaztela eta Leon	22.072	11.519	52,2	10.553	47,8
Gaztela-Mantxa	16.263	8.596	52,9	7.667	47,1
Euskadi	5.986	3.276	54,7	2.710	45,3
Valentzia	17.156	9.468	55,2	7.688	44,8
Kantabria	4.866	2.733	56,2	2.133	43,8
Andaluzia	45.539	25.865	56,8	19.674	43,2
Extremadura	15.414	8.753	56,8	6.661	43,2
Katalunia	26.097	14.954	57,3	11.143	42,7
Kanariak	12.281	7.058	57,5	5.223	42,5
Murtzia	11.643	6.749	58,0	4.894	42,0
Galizia	20.174	11.868	58,8	8.306	41,2
Errioxa	5.962	3.556	59,6	2.406	40,4
Asturias	9.437	5.673	60,1	3.764	39,9
Aragoi	13.296	8.062	60,6	5.234	39,4
Balearrak	5.236	3.385	64,6	1.851	35,4
Guztira	236.189	133.707	56,6	102.482	43,4

Iturria: Galera, Victoria. 2005. "La alta dirección en la Administración Autonómica". Valentzian, 2005eko azaroan egindako *Zerga-politika eta generoa* mintegian aurkeztutako txostena.

7.3. Partaidetza soziala eta ekonomikoa: alderdiak, sindikatuak, elkarteak eta enpresak

7.17. taula. EAEko alderdien buruzagizetako emakumeak eta gizonak. 2006.

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
EAJ	12	16,7	2	16,7	10	83,3
EA	12	33,3	4	33,3	8	66,7
BATASUNA *	32	28,1	9	28,1	23	71,9
PSE-EE	28	42,9	12	42,9	16	57,1
EB*	11	27,3	3	27,3	8	72,7
PP*	60	38,3	23	38,3	37	61,7

Iturria: Alderdi politikoen webak oinarri hartuta guk egina. Oharra: izartxo batekin jarritako alderdiei buruzko datuak 2002koak dira.

7.18. taula. EAEko sindikatuen buruzagitzetako emakumeak eta gizonak. 2006.

	Guztira	Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%
ELA	12	4	33,3	8	66,7
CCOO	25	8	32,0	17	68,0
LAB	10	5	50,0	5	50,0
UGT	7	2	28,6	5	71,4
EILAS	17	8	47,1	9	52,9

Iturria: Sindikatuek emandako datuak oinarri hartuta guk egina.

7.19. taula. Lurralde historiko bakoitzean erregistratutako emakumeen elkartekopurua, elkarte-motaren arabera. 2005.

Jarduera-arloak	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	%
Soziokulturala	34	38	72	144	37,5
Prestakuntza	6	1	9	16	4,2
Laguntza-osasuna	2	6	16	24	6,3
Hausnarketa feminista	1	8	10	19	4,9
Soziokulturala eta prestakuntza	8	5	40	53	13,8
Soziokulturala eta laguntza-osasuna	0	0	2	2	0,5
Soziokulturala eta hausnarketa feminista	1	3	3	7	1,8
Prestakuntza eta laguntza-osasuna	1	1	1	3	0,8
Prestakuntza eta hausnarketa feminista	0	1	7	8	2,1
Soziokulturala, prestakuntza eta laguntza-osasuna	2	0	0	2	0,5
Soziokulturala, prestakuntza eta hausnarketa feminista	3	2	3	8	2,1
Soziokulturala, laguntza-osasuna eta hausnarketa feminista	0	1	1	2	0,5
Prestakuntza, laguntza-osasuna eta hausnarketa feminista	0	0	1	1	0,3
Soziokulturala, prestakuntza, laguntza-osasuna eta hausnarketa feminista	0	0	1	1	0,3
Beste arlo batzuk	15	28	51	94	24,5
EAE osoa	73	94	217	384	100,0

Iturria: Emakunde.

7.20. taula. EAEko enpresa-elkarteen lehendakaritzan dauden emakumeak eta gizonak. 2005.

Elkartea	Lehendakaria
ADEGI Gipuzkoako Enpresarioen Elkarte	Gizona
AED Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarte	Emakumea
AJEBASK Gazte Enpresarien Elkarte	Gizona
ALAVA INCOMING Biltzarrak eta Turismoa Sustatzeko Enpresa Elkarte	Gizona
AMPEA Arabako Profesional eta Enpresari Emakumeen Elkarte	Emakumea
APD Zuzendaritzaren Aurrerabiderako Elkarte	Gizona
Bizkaiko Ostalaritza elkarte	Gizona
CEBEK Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa	Gizona
EET Euskal Enpresarien Elkargoa	Gizona
CONFEBASK Euskal Entrepresarien Konfederakuntza	Gizona
EKA Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa	Gizona

Iturria: 2005-2006 komunikazio-gida oinarri hartuta guk egina.

7.21. taula. EAEko ganbera ofizialetan eta Bilboko Burtsan lehendakaritzan dauden emakumeak eta gizonak. 2005.

Ganbera	Lehendakaria
Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera	Gizona
Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera	Gizona
Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkundera	Gizona
Espaniako Iparralderako Frantziako Merkataritza eta Industria Ganbera	Gizona
Arabako Jabetza Hiritarra	Emakumea
Bizkaiko Jabetza Hiritarra	Emakumea
Gipuzkoako Jabetza Hiritarra	Gizona
Bilboko Burtsa	Gizona

Iturria: 2005-2006 komunikazio-gida oinarri hartuta guk egina.

7.22. taula. Profesionalen elkargoetako lehendakaritzako emakumeak eta gizonak, lurralde historikoen arabera. 2005.

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Araba	28	5	23
Bizkaia	46	5	41
Gipuzkoa	33	4	29
Guztira	107	14 13,1%	93 86,9%

Iturria: 2005-2006 komunikazio-gida oinarri hartuta guk egina.

7.23. taula. Etengabeko merkatuan kotizatu eta egoitza EAEn duten enpresen administrazio kontseiluen osaera, sexuaren arabera. 2006.

Enpresa	Kontseiluko kideak	Emakumeak	Emakumeen %	Gizonak	Gizonen %
Banco Guipuzcoano	10	0	0,0	10	100
BBVA	15	1	6,7	14	93,3
CAF	10	0	0,0	10	100,0
CIE Automotive	11	1	9,1	10	90,9
Faes Farma	10	0	0,0	10	100,0
Gamesa	11	0	0,0	11	100,0
Iberdrola	22	0	0,0	22	100,0
Iberpapel	10	0	0,0	10	100,0
Azkar Garraioak	10	4	40,0	6	60,0
Tubacex	9	0	0,0	9	100,0
Tubos reunidos	11	1	9,1	10	90,9
Vidrala	10	1	10,0	9	90,0
Zardoya Otis	13	0	0,0	13	100,0
Guztira	142	8	5,3	144	94,7

Iturria: 2006ko otsailaren 8an Diario Vascon argitaratutako informazioa oinarri hartuta guk egina.

7.24. taula. EAEn egoitza duten aurrezki-kutxen administrazio kontseiluen osaera, sexuaren arabera. 2006.

	Kontseiluko kideak	Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%
BBK	17	1	5,9	16	94,1
Kutxa	17	1	5,9	16	94,1
Vital Kutxa	16	3	18,7	13	81,3
Guztira	50	5	10,0	45	90,0

Iturria: 2006ko otsailaren 8an Diario Vascon argitaratutako informazioa oinarri hartuta guk egina.

7.4. Berdintasunerako esku-hartze publikoa

7.25. taula. Berdintasunarekin lotuta Eusko Legebiltzarrean izapidetutako ekimen-kopurua, ekimen-motaren eta legegintzaldiaren arabera. 1980-2006.

LEGEBILTZARREKO FUNTZIOA	I. legegintz	II. legegintz	III. legegintz	IV. legegintz	V. legegintz	VI. legegintz	VII. legegintz	VIII. legegintz	GUZTIR A	%
FUNTZIO LEGEGILEA Lege-proposamenak eta - proiektuak	0	0	1	0	0	0	2	0		3	1,9
SUSTAPEN-FUNTZIOA Legez besteko proposamenak Erakunde-adierazpenak Proposamenak eta ebazpenak	2	0	1	1	12	0	15	10		41	25,5
KONTROL ETA INFORMAZIOKO FUNTZIOA Galderak Interpelazioak Agerraldiak	5	2	3	5	16	1	42	33		107	66,5
HITZARMENEN ONARPENA	0	0	0	5	5	0	0	0		10	6,2
GUZTIRA	7	2	5	11	33	1	59	43		161	100

Iturria: Eusko Jaurlaritzako dokumentazio-zerbitzutik abiatuta guk egina. <parlamento.euskadi.net> 2006ko apirilaren 27ra arte Legebiltzarreko Erregistroan aurkeztutako ekimenak azaltzen dira.

7.26. taula. Euskadiko Autonomia Erkidegoko udal eta Foru Aldundietako berdintasun-planak. 2006.

UDALERRIA	ONARPEN-DATAK	Biztanleria
Abadiño	2005eko azaroaren 24a	6.954
Abanto-Zierbena	2003ko otsailaren 17a	9.731
Amurrio	2001eko maiatzaren 24a	9.720
Andoain	2000ko martxoaren 2a	14.138
Anoeta	2001eko ekainaren 12a	1.718
Areatza	2005eko azaroaren 3a	1.039
Arrasate	2003 (II. plana)	23.425
Azkoitia	2003ko urtarrilaren 31	10.469
Azpeitia	2004ko maiatzaren 6a	13.740
Balmaseda	2000ko abenduaren 18a	7.180
Barakaldo	2000ko maiatzaren 25a	97.302
Basauri	2005eko urriaren 25a (II. plana)	46.669
Berango	2000ko ekainaren 13a	5.298
Berriz	2003ko maiatzaren 8a (II. plana)	4.300
Bilbo	2003ko otsailaren 27a (II. plana)	356.635
Donostia	1997ko martxoaren 13a	179.208
Durango	2006ko martxoaren 30a	25.346

Eibar	2005eko irailaren 26a (II. plana)	28.677
Elorrio	2001eko ekainaren 8a	7.213
Ermua	1999ko maiatzaren 5a (II. plana)	17.214
Galdakao	2003ko maiatzaren 22a	29.569
Gernika-Lumo	2001eko ekainaren 13a	15.546
Getxo	2005eko urriaren 28a (II. plana)	84.822
Gordexola	1998ko abenduaren 30a	1.510
Gueñes	2002ko ekainaren 24a	5.949
Hernani	2003ko maiatzaren 16a	18.671
Hondarribia	1997ko maiatzaren 14a	15.050
Irun	2001eko azaroaren 28a	56.625
Leioa	2005eko otsailaren 23a	28.401
Laudio	2001eko urtarrilaren 29a	19.200
Mungia	2001eko apirilaren 27a	13.216
Muskiz	2001eko irailaren 27a	6.656
Ondarroa	2001eko maiatzaren 31	10.100
Ortuella	2002ko maiatzaren 30a	8.874
Portugalete	2002ko abenduaren 30a	56.441
Santurtzi	1998ko maiatzaren 18a	47.736
Tolosa	2004ko abenduaren 27a	18.015
Ugao	2001eko urtarrilaren 30a	4.097
Urretxu	2002ko urtarrilaren 28a	6.563
Trapagaran	2002ko abenduaren 30a	13.210
Gasteiz	1999ko apirilaren 23a	220.254
Zaldibar	2001eko maiatzaren 31	2.925
Zalla	2000ko urtarrilaren 27a	7.800
Zarautz	2004ko ekainaren 30a	21.466
Zegama	2003ko ekaina	1.307
Zierbena	2001eko maiatzaren 31	1.241
Guztira	46 udalerri	1.581.220
EAEko udalerriak guztira	250 udalerri	2.120.384
Plana duten udalerrien %	% 18,4	% 74,6
FORU ALDUNDIAK		
Arabako Foru Aldundia	1999ko otsailaren 16a (II. plana egiteko prozesuan)	
Bizkaiko Foru Aldundia	2003ko abenduaren 30a (II. plana)	
Gipuzkoako Foru Aldundia	2002ko irailaren 3a	

Iturria: Emakunde.